




Bakea eta Bizikidetz



Bakea eta Bizikidetz

(Jaurlaritzaren Kontseiluak onartua 2006ko maiatzaren 2an)

Argitaratzailea: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia
Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco
Donostia-San Sebastián, 1 - 01010 Vitoria-Gasteiz

Konposaketa: Composiciones RALI, S.A.
Particular de Costa, 8-10 - 48010 Bilbao

Inprimatzailea: Estudios Gráficos ZURE, S.A.
Carretera Lutxana-Asua, 24-A - 48950 Erandio-Goikoa (Bizkaia)

L.G.: BI-229-07

**«Adiskidetutako gizartea dugu
helburu, biktimenganako oroimena,
justizia eta giza eskubideekiko
errespetua oinarri direla»**

**Bakea nahi baduzu,
Bakea prestatu**

AURKIBIDEA

| | <u>Orr.</u> |
|---|-------------|
| FILOSOFIA ETA HELBURUAK | 9 |
| 1. Bakea eta bizikidetzaren sendotzen laguntzeko proiektua. <i>Zertarako?! ..</i> | 11 |
| 2. Gizarteari begira konpromisoa hartzeko proiektua. <i>Zergatik?!</i> | 11 |
| 3. Begirunea erakusteko eta ordaina emateko tresna izan nahi duen proiektua. <i>Nola?!</i> | 13 |
| 4. Bost ardatz eta ibili beharreko bide bat duen proiektua. <i>Egitura!!</i> | 15 |
| ABIABURUKO LAU PRINTZIPIO | 17 |
| 1. Bizitza eta giza eskubideak <i>errespetatzea</i> | 19 |
| 2. Biktimei begirunea <i>erakustea</i> | 20 |
| 3. Egindako kalteen <i>ordaina ematea</i> | 22 |
| 4. <i>Elkarrekin bizitzea</i> eta adiskidetzea | 23 |
| BOST ARDATZ ETA IBILI BEHARREKO BIDE BAT | 25 |
| 1. ardatza: Giza eskubide guztiak defendatzea eta sustatzea | 27 |
| 2. ardatza: Terrorismoaren biktimei elkartasuna erakustea | 33 |
| 3. ardatza: Oroimen historikoa berreskuratzea eta frankismo-garaiko biktimei ordaina ematea | 46 |
| 4. ardatza: Askatasun nahiz eskubide zibil eta politikoen alde lan egitea ... | 55 |
| 5. ardatza: Torturari aurre hartzea eta atxilo nahiz preso hartutako pertsonen eskubideak errespetatzea | 62 |
| <i>Ibili beharreko bidea: «Bakeari eta bizikidetzari begira hezteko Adiskidetzea».</i> | 68 |

FILOSOFIA ETA HELBURUAK

1. Bakea eta bizikidetzaren sendotzen laguntzeko proiektua.
Zertarako?!
2. Gizarteari begira konpromisoa hartzeko proiektua.
Zergatik?!
3. Begirunea erakusteko eta ordaina emateko tresna izan nahi duen proiektua. *Nola?!*
4. Bost ardatz eta ibili beharreko bide bat duen proiektua.
Egitura!!

1. BAKEA ETA BIZIKIDETZA SENDOTZEN LAGUNTZEKO PROIEKTUA. ZERTARAKO?!

Filosofia bat

Badakigu Eusko Jaurlaritzaren lanak zer-nolako mugak dituen Bakea eta Bizikidetza guregana ekartzeko prozesua sustatzeko orduan. Bakea behin betiko lortzea ez dago Gobernu baten lanaren esku; edo ez horren esku bakarrik, beste aktore askok ere eragina baitute horretan. Gobernu batek ezin du berak bakarrik bere kabuz bakea ekarri; baina, bai, bakea sendotzeko baldintza egokiak sortaraz ditzake eta elkarrekin egokiro bizitzeko ekimenak susta ditzake. Hauxe da gure filosofia, plan honen abiaburu: «Bakea guregana ekartzen eta gure arteko bizikidetza errotik hobetzen laguntzea, elkarrekin adiskidetzeko ibilbide horren aldeko egoerak eta baldintzak sortarazita».

Helburu nagusiak

Helburu nagusiak proiektu honen barruan programatutako jardun guzti-guztietan agertzen dira zeharka, hiru helburu hauek baitira gainerako guztien lokarri eta bilgune:

- Pertsona guzti-guztien bizitza eta giza eskubideak errespetatzea.
- Bi-Indarkeriaren eta terrorismoaren biktimei egindako kalte guztiak aitortzea, oroitzea eta dagokien ordaina ematea.
- Hiru-Politika aktiboak eta ekimen konkrituak garatzea, Bakegintzan hezi gaituzen, eskubideak eta askatasunak urratzeari aurrea hartu diezaiogun, eta aurrerantzean inoiz berriz horrelakorik gerta ez dadin.

2. GIZARTEARI BEGIRA KONPROMISOA HARTZEKO PROIEKTUA. ZERGATIK?!

Gobernuaren programa, abiaburu

Lehendakariak, 2005eko ekainaren 22an, inbestidura-saioan egindako hitzaldian gobernu-programa aurkeztu zuenean, bere konpromisoa iragarri zuen, alegia, «ba-

kearen eta adiskidetzearen aldeko Plan integrala egin eta onartuko zuela, plan horretan, Jaurlaritzak giza eskubideen arloan bete beharko dituen zeregin guztiak aintzat hartuta eta jasota». Konpromiso horri erantzuteko bidean egindako lehendabiziko aurrerapausoa da dokumentu hau.

Gizartearen eskaria, erreferentzia nagusia

Gure gizartearen ustetan, terrorismoaren indarkeria anakronismoa da, eta ez da bateragarria gure garaiotako gizon-emakumeek duten konpromiso etikoarekin ezta bizitzan dituzten lehentasunekin ere. Orain, ETAk martxoaren 22an egindako adierazpenak bakerako abagunea ekarri du, eta euskal gizarteak konponbideak nahi ditu, eta ekimen argiak eta konketuak eskatzen dizkigu. Eta horixe da, hain zuzen ere, proiektu honen iparra: aldarrikapen horri modu egokian erantzutea eta euskal gizartearen nahiak egokiro betetzea, giza eskubideak urratu dituen aro hau erabat eta betiko gainditu eta elkarren arteko bizikidetza hobetu dezagun. Gobernu honek bere gain hartu duen konpromisoa zehatz-mehatz eta ebaluatzeko moduan agertu nahi dugu, gizarteak eskatzen baitigu eragile eta eraginkor izan gaitezen bizikidetza eta giza eskubideen aldeko lanean.

Egungo unea, itxaropen-ingurunea

Euskal politikan bakerako abagunean gara; eta azken aldi honetako historian behintzat ez da inoiz horren aukera argirik izan. Zailtasunak eta kontraesanak daude, egia da; baina elkarrizketa-nahia eta giroa baretzeko gogoia ere hor daude, hazteko gogoz, oraindik hain hauskorra den egoera hasi berri hau sendotu nahian. Gobernuak beti dauka ezinbestean bete beharreko zeregin moralak, giza eskubideak defendatu behar baititu beti, eta indarkeria gainditzeko baldintzak sortarazi; orain ere, ETAk su-etenaldi iraunkorra iragarri duen honetan, egin litekeen ahaleginik handiena egingo dugu, bakea lortzeko dugun abagune honek atzerako bueltarik izan ez dezan.

Giza eskubideak, elkarrekin egokiro bizitzeko oinarri

Ekidistantzia faltsu horiek alde batera utzita, hemen baliozkoa den erreferentzia-puntu bakarra dago bizikidetza lortzeko lanean: giza eskubide guzti-guztiak errespetatu behar dira, inolako bazterkeriarik gabe; horixe da guztiok izan beharreko ipar-orratza. Giza eskubideak defendatzea eta errespetatzea; horixe da gure arteko bizikidetza eta elkarrekiko bizimodua antolatzeko bizkarrezurra; horixe da gizarte zuzena, bidezkoa eta solidarioa bermatzeko bidea.

3. BEGIRUNEA ERAKUSTEKO ETA ORDAINA EMATEKO TRESNA IZAN NAHI DUEN PROIEKTUA. *NOLA?!*

Guzti-guztiok dugu bakegintzan bete beharreko zereginen bat; gutariko bakoitzak berea. Eusko Jaurlaritzak erabilgarri dituen bitarteko guztiak jarriko ditu lanean, elkarrekiko bizimodua hoberrantz aldatu, eta bizikidetzarako aro berria has dadin. Nola? Bi eratarata: batetik, bizitzeko eskubidea aldarrikatuta, bizitzak baitu lehentasuna gainerako gauza guztien gainetik. Bestetik, biktimei lagunduta eta begirunea erakutsita. Biktimaren ikuspegia gureganatu behar dugu. Horretarako, ekimen konkretuak burututa, gure gizartean irekita dauden zauri guztiak zaindu eta leundu behar ditugu, eta eskura ditugun bitarteko guztiak erabili, horrelako sufrimendurik gurean berriro gerta ez dadin.

Bizitzeko eskubideak du funtsezko lehentasuna

Nahi genuke proiektu hau lagungarri izatea guztiok aitortu eta ikus dezagun giza eskubideak urratu izanak eta indarkeriak zer-nolako sufrimendua ekarri duten. Horretarako, zenbaitetan erraza ez izan arren, batetik, barru-barrutik aitortu behar dugu pertsona askok sufritu dutela alferrik; dudarik gabe, lehentasunik behinena bizitzeko eskubidea defendatzea da, hori kenduta gainerako eskubideek ez baitute zentzurik; eta, bestetik, indarkeriaren mehatxua eta eskubideen eta askatasunen urraketa zuzenean jasan duten pertsonen lagundu behar diegu.

Biktimez oroitzea; aurrera egin ahal izateko ezinbesteko bidea

Bizikidetzak, elkarrekin bizitzeko modua hobetu nahi duen gizarteak giro egokia behar du, bakea, askatasuna, justizia eta giza eskubideen errespetua oinarri direla. Baina, horrez gainera, hobekuntza hori benetan sendoa izan dadin, eta iraganeko akatsak berriz gerta ez daitezen, biktimenganako oroimena izan behar da beti argi buruan. Ez dugu etorkizuna ahanzturaren gainean eraiki nahi; biktimen aldeko oroimena eta duintasuna zaindu nahi ditugu, beren sufrimenduaren omenez, etorkizunerako ikasbide, zauriak berriz ireki ez daitezen eta elkarrekin gero eta hobeto bizitzeko ikas dezagun.

Biktimen oinazea aitortzea, elkar ulertzeko bidea

Gizakiaren errukia kanporatzeko oinarritzko jarduna da, politikatik at, inoren sufrimendua aitortzea, min hori norberarengan sentitzea. Bakoitzak hurbilen duenaren mina sentitzen du barnerago; bakoitzak kide duenaren samina jasaten du mingarriago; hori ulergarria da. Baina bakegintzan denok egin behar dugu ahalegina, batez ere, Gober-

nuan eta politikagintzan dihardugunok, ez sentimendu hori aldarazten, baizik eta gure gizartea osatzen duten giza sufrimendu anitz horiek aitortzen eta gureganatzen, oinaze horiek arindu, leundu eta konpon ditzagun, ahal dugun neurrian behintzat.

Era askotako sufrimenduak daude; egiaztapen objektiboa

Proiektu honetan behin baino gehiagotan nabarmendu dugu «guztiak» hitza: sufrimendu guztiak, biktima guztiak, zauri guztiak... Erabat jakitun gaude eta ondotxo dakigu oso-oso gai delikatuaz ari garela. Gure gizartean zauri asko daude sendatu gabe, oraindik zabalik. Hori horrela dela onartu gabe ezin izango genioke prozesu honi behar bezala eta modu egokian heldu.

ETAren terrorismoak utzitako zauriak sufritu ditugu, izugarriak, zauri egin berriak, atzera bueltarik ez duten zauriak. ETak 800 pertsona baino gehiago hil ditu 40 urtetik gorako historia luze horretan. Beste askok bahiketa jasan behar izan dute, edo beren senitartekoak ikusi behar izan dituzte zaurituta edo elbarri. Enpresari ugarik jasan dute estortsioa eta txantajea. Azken urteotan, milaka pertsonak bizi behar izan dute mehatxupean. Horrek utzitako aztarna fisikoak, arrasto emozionalak eta ondorio ekonomikoak ezin dira kalkulatu ere egin.

Guztiek dute erraietan gordeta samin izugarria eta bidegabea. Biktima guztiek jasan behar izan dute, gainera, erantsitako beste sufrimendu bat, askotan sentitu dutelako gizartea urrun zeukatela, eta instituzioen aldetik ere aitormenik ez zeukatela.

Horrez gain, ez dugu inoiz ahaztu behar ETak Euskal Herriaren izenean jardun duela, eta bere helburu bakarra gizarte honen bizikidetza eta elkarbizitza higatzea eta urratzea izan dela beti. Beraz, ETAren terrorismoak ekarri duen sufrimendua aitortzeko orduan izandako hutsunea betetzea, horixe izango da Gobernu honen lehentasun nagusia.

Azken lau hamarkada hauetan, 350 pertsona inguru hil dituzte polizien ekintzek edo talde terroristek, besteak beste, GALEk, eskuineko taldeek edo ezezagunek. Tortura-kasuak daude epai judizial irmoz egiaztatuta, eta beste tortura-kasu batzuk ere bai, giza eskubideen aldeko talde eta nazioarteko erakunde ospetsuek salatuta.

Euskal presoak sakabanatu eta urruntzeko estrategia darabilen espetxe-politikak ere sufrimendua eransten die presoan familiarterako eta lagunei. Aldi berean, gure gizarteko herritar-multzo zabal batek eskubide zibil eta politikorik oinarritzkoenak urratuta dituela ikusten du bere burua, oinarritzko askatasunik gabe utzi dutelako.

Baina, euskal gizarteak aspaldiko zauri bat ere badu oraindik irekita; ez oraintsukoa, baina gaur egunean ere min ematen jarraitzen duena. Frankismoak utzitako biktimez ari gara. Harrezkero, 70 urtetik gora igaro dira kolpe militarra izan zenetik, eta oraindik ez zaie jendaurrean eta duintasunez ordaindu, behar bezalako aitormen sozial, politiko eta materiala erakutsita, bidegabekeria haren ondorioak jasan zituztenei. Garai hartako oroimen historikoa eta egia ere ezin izan dira oraindik erabat berreskuratu. Bidegabeko

gerra haren ondoren «garaituta» bizi behar izan zutenak ahaztuta egon direla erakusteko, nahikoa da datu hauek gogoratzea: gutxi gorabehera 30.000 gorpu daude bide-bazterretan edo hilerrien atzeko aldean lurperatuta Estatu osoan, 30.000 pertsona baino gehiago fusilatu baitzituzten (hori, gerra ondoren bakarrik); euskal lurrean 3.000 pertsona inguru fusilatu zituzten. Sufrimendu hori urrutikoa eta aspaldikoa da itxuraz, baina orduko lekukoak eta biktimak oso hurbil ditugu; haietako asko oraindik bizirik daude, eta denbora luze horretan ezkutuan eta isilean eraman behar izan dute mina. Sufrimendu horrek merezi du eta behar du oraindik ere bere ordaina.

Biktimen aldeko aitormena eta ordaina, gure konpromiso politikoa

Bake-bidetik doan gizarte batek ezin du aurrera egin terrorismoaren biktimei dagoen lekua eman gabe, eta indarkeriak utzitako zauri guztiei eta giza eskubideen urraketa guztiei kasu egin gabe. Bakebidean aurrera doan gizarte horretara iristeko, eta proiektu honen abiaburu diren helburuak betetzeko, Gobernuak, bere asmoei tinko eutsita, ekimen-multzoa jarri nahi du martxan, gure gizartean oraindik sendatu gabe dauden sufrimendu guzti-guztiak osatzeko, erabat eta oso-osorik.

4. BOST ARDATZ ETA IBILI BEHARREKO BIDE BAT DUEN PROIEKTUA. *EGITURA!!*

Bost jarduera-ardatz dituen Plana

Lanerako plan honetan bost ardatzen inguruan jardungo dugu, bertan ezarritako filosofia eta helburuak betetzeko:

1. Giza eskubide guztiak defendatzea eta sustatzea.
2. Terrorismoaren biktima guztiei elkartasuna adieraztea.
3. Oroimen historikoa berreskuratzea eta frankismo-garaiko biktimei ordaina ematea.
4. Askatasunak eta eskubide zibil eta politikoak defendatzea.
5. Torturari aurre hartzea eta atxilo nahiz preso hartutako pertsonen eskubideak errespetatzea.

Ardatz horietako bakoitzean ekimen-kopuru handia planteatu da, jardun horien bitartez sufrimendua aitortu eta leuntzeko, eta etorkizunean giza eskubiderik berriz ez urratzeko. Zenbaitetan, jardun horien bitartez, arazoaren iturri den hori konpondu nahi izango dugu zuzenean; beste batzuetan, berriz, nahiago izango dugu hezkuntzan edo gizartearen sensibilizazioan lan egin, edo bakearen kultura eta giza eskubideen aldeko errespetua zabaldu; edo balio zibikoak eta ezberdintasunarenganako tolerantzia sustatu.

Ibili beharreko bide bat duen proiektua

Beharrezkoa da bakearen alde lan egitea, nahitaezkoa da biktimen mina eta samina aitortzea, ezinbestekoa da giza eskubide guztien alde lan egitea; baina, hala ere, indarkeriarik gabeko gizartea, ez da, besterik gabe eta berez, adiskidetu den gizartea. Euskal gizarteak zorra kitatu behar du biktimekin, hitzordua jarria du bakearekin, eta ibili beharreko ibilbidea du aurretik: bizikidetzara iristeko bidea ibili behar dugu, elkar errespetatuta, tolerantziaz eta adiskidetasuna helburu dugula. Lehen urratsak egin behar ditugu bide horretan, betiere, herritarrak bakegintzarako hezten, horixe baita funtsezko tresna, eta eraginkorrena.

Proiektu irekia eta dinamikoa

Behin helburuak zehaztuta, ez dugu dokumentu itxia planteatu nahi, hasieratik bere horretan finkatuta egonez gero, agortuta egongo bailitzateke sorburutik. Azken batean, lan-tresna lagungarria eskaini nahi dugu, giza eskubideak defendatzeko arloan Gobernuaren sail guztietan berdintsu jokatzeko eta batera lan egiteko ildoak eta ardatzak argi egon daitezzen. Lanerako plangintza irekia da, beraz; eta legegintzaldia aurrera joan ahala gauzatzen eta eguneratzen joan beharko dugu ezinbestean, ikuspegi kuantitatibo nahiz kualitatiboak aintzat hartuta. Ildo horretatik, beraz, bakearen eta bizikidetzaren alde lan egiteko tresna aktiboa eta dinamikoa da plan hau.

Badakigu jakin, bai, zailtasun eta eragozpen ugari izango dugula, proiektu honetan sufrimenduak denak batera aztertu nahi direlako, hau da, indarkeria erabilita eta banakako nahiz taldekako giza eskubideak urratuta gure gizartean bidegabe eta modu izugarrian eragin diren sufrimendu guztiak osotasunean aztertu nahi direlako. Guztiok egin beharko dugu ahalegina, eskuzabal eta enpatiaz joka dezagun.

Guk, arduradun politikook ere, milaka eta milaka herritar ezezagunek beren eguneroko bizimoduan erakusten diguten ereduari jarraitu beharko genioke, bakoitzaren ezberdintasunak onartuta eta errespetatuta, guztiak elkarrekin egokiro bizitzeko gai baitira. Eusko Jaurlaritzak gonbita egin nahi die Legebiltzarreko talde guztiei, indar politikoei eta gizarte-eragileei, bakea ekartzeko eta bizikidetzara hobetzeko ahalegin honetan guztiok batera lan egin dezagun. Bide beretik, esan behar dugu aurkeztutako proiektu honek proposamen irekia izan nahi duela, eta, elkarrizketaren eta adostasunaren bitartez, proiektua eztabaidatzeko eta gauzatzeko lanetan etor daitezkeen ekarpenak jasotzeko borondatea ere baduela.

Horretarako, Gobernuak urtero horri buruzko txostena aurkezteko konpromisoa hartu du, Eusko Jaurlaritzako Giza Eskubideen Batzordean lan-plangintza noraino garatu eta bete den jakinarazteko, eta Legebiltzarreko talde guztien ekarpenak jaso ahal izateko.

ABIABURUKO LAU PRINTZIPIO

1. Bizitza eta giza eskubideak *errespetatzea*
2. Biktimei begirunea *erakustea*
3. Egindako kalteen *ordaina ematea*
4. *Elkarrekin bizitzea* eta adiskidetzea

Historia astuna eraman dugu politikagintzan, elkar ulertu gabe, elkarrekin haserre eta elkarren aurka, eta, beharbada, oraindik aldean daramagun zama horrek, modu objektiboan begiratuta, zailtasunak dakarzkigu bai bakearen eta bizikidetzaren aldeko proiektua sustatzeko eta aurrera eramateko orduan, bai eta adostasun politiko eta soziala lortzerakoan ere. Hala eta guztiz ere, saiatu bai, saiatuko gara behintzat. Horretarako, guztion adostasunaz, lanerako oinarri sendoak finkatzea, horixe da eman beharreko lehendabiziko urratsa. Ildo horri jarraituta, erabat ziur gaude, alderdien arteko ika-mikak alde batera utzita, bat etorriko garela oinarriko lau abiaburuak onartzeko orduan, abiaburu horiexek baitira proposamenaren iturri, helburuen zutabe eta Gobernuaren lanaren oinarri: Bizitza eta giza eskubideak errespetatzea. Biktimei begirunea erakustea. Egindako kalteen ordaina ematea; eta bizikidetzaren eta adiskidetzaren. Lau abiaburu horiexek dira Eusko Jaurlaritzaren borondate politikoaren adierazgarri orain gauden bidegurutze historiko honetan.

1. BIZITZA ETA GIZA ESKUBIDEAK ERRESPETATZEA

Oinarrizko printzipioa

Bizitza eta giza eskubideak proiektu honen lehendabiziko abiaburu direla adierazterakoan, berriz ere argi eta garbi utzi nahi dugu ez dagoela beste ezer bizitzeko eskubidea baino garrantzitsuagorik, ez gaineratik, ez aurretik. Ezertxo ere ez, baina. Bizitzaren gaineratik ez dago ez lurralde edo nazio asmo jakinik, ezta ustezko estatu-gailentasun ukiezinik ere. Horretan ez dago inolako zalantzarik, horixe baita haitz sendoa; eraiki nahi dugun guztia oinarri horren gainean eraiki behar da, Plan hau edo Gobernuaren jarduna ez ezik, bizikidetzaren bera eta edozein proiektu, pentsaera, helburu, ideia edo eskubide ere bai. Argi dago; funtsezko oinarria da, lehendabiziko abiaburua. Hala ere, beharrezkoa da, eta komenigarria ere bai, hori behin eta berriz gogoraraztea, eta are gehiago gure Herri honetan, sarritan jarri izan baitira hemen helburu batzuk nahiz besteak bizitzaren eta giza duintasunaren gaineratik.

Tolerantzia

Tolerantziak jokatu eta giza eskubideak errespetatu behar direla-eta, beti eta etenik gabe horri buruz pedagogia egitea, horixe da printzipio honek dakarkigun konpromiso behinenetako bat. Prebentzioa sustatzeko bidea da, egoerari aurrea hartzeko modua; gizakien duintasuna urratzen duen bitartekorik inork berriz erabil ez dezan. Tolerantzia eta besteenganako errespetuan oinarrituta hezi behar dugu, horrela ahultzen baita dogmatismoa, alegia, helburuei pertsoneri baino garrantzi handiago ematen dietenen jokabidearen sustraia. Norbere helburuak balio absolutua daukala sinetsi eta norbera erabat arrazoi guztiaren jabe dela sentituz gero, seguru egote horrek ematen du bidea helburu baten defentsan etikoak ez diren bitartekoak erabiltzeko, eta argi berdea emateko giza eskubideak urra daitezela. Dogmatismoa eta intolerantzia gaingitu behar ditugu, beraz, horixe baita, zalantzarik gabe, bizitza-eskubidea eta giza eskubideak defenditzeko beste moduetako bat. Eta hori lortzea da, hain zuzen ere, proiektu honen asmoetako bat.

Konpromisoak

Abiaturuak, printzipioak, konpromiso konkretu eta aktiboetan gauzatu behar dira; bestela, asmo onen erakustaldi erretorikoa baino ez dira izaten azkenean; eta desegin egiten dira, nola azukrea uretan, hala asmo hutsak denboran. Lanerako plan honek, beraz, neurri konkretu eta zehatz asko jarriko ditu martxan, arlo guztiak aintzat hartuta: gizartea, politika, legegintza, hezkuntza eta zabalkundea; horren bitartez, bizitza eta giza eskubideak errespetatuko direla bermatzen lagundu nahi dugu, guztion ondare izanik, errespetu horren gainean baitaude eraikita gizartearen askatasuna eta bizikidetzaren demokratikoa. Euskal gizarteak oso ondo daki zein beharrezkoa den errespetuaren ondare hori ondo zaintzea eta gordetzea, zoritxarrez eta tamalez, zuzenean bere haragian sufritu behar izan dituelako, belaunaldiz belaunaldi, indarkeriaren ondorio lazgarriak.

2. BIKTIMEI BEGIRUNEA ERAKUSTEA

Elkartasuna

Biktimei begirunea erakustea, horixe da proiektu honi eusten dion bigarren abiaturua. Biktima guztiei, banan-banan eta jendaurrean, aitormena eta begirunea erakusteko konpromisoa eta borondatea du Gobernuak arlo politikoan eta sozialean. Era horretan, terrorismoaren biktimekin kendu gabe dugun begirune-zor historikoa ordaindu nahi dugu, Herri honetan beste biktima batzuek izan dute eta aitormen hori.

Horrexegatik nahi dugu biktinek gure elkartasun aktiboa sentitzea gertutik. Biktima guztiak babestuta sentitzea nahi dugu, inor ahaztu gabe, inor erabili gabe, inor konparatu gabe. Biktinek sufritu duten oinaze neurrigabea aitortuta egotea nahi dugu. Jakinarazi nahi diegu sufritu duten bidegabekeriak ez duela justifikaziorik, eta, batez ere, gizarte honek benetan maite dituela, sigletan nahiz aukera politikoe-tan inolako bereizketarik egin gabe. Jakinarazi nahi diegu etengabean gogoan du-gula jasan duten oinaze lazarria, atzera bueltarik gabea; eta jakinarazi nahi diegu, zalantzarik gabe, gure gizartearen oroimenean iraungo dutela beti. Jakinarazi nahi diegu barkamena eskatzen diegula, guztiok inoiz egin ditugun akatsengatik.

Adostasuna

Biktimei begirunea erakusteko printzipio hori, ordea, ez da berez eta bera bakarrik nahikoa. Ikuspegi politikotik begiratuta, ahalik eta adostasunik handiena lortzeko konpromisoa hartu behar da arlo honetan. Azken urteotan, gai honi buruz egon den zatiketa politikoak areagotu besterik ez du egin sufrimendua. Hori ikusita, argi dago biktimei laguntza eta elkartasuna erakusteko orduan ezinbestekoa dela adostasun sozial eta politikoa lortzea; beharizan horri erantzun behar zaio lehenbailehen eta lehentasunez. Biktimei aitormena eta begirunea erakusteko ekimen guztietan, ados-tasunez eta haserririk gabe, alderdi politiko guztiek denek batera lan egiteko kon-promisoari lotuta dago abiaburu hau.

Errespetua

Jakina denez, begiruneaz eta adostasunaz gainera, errespetua ere merezi dute-eta biktinek. Inork ez dauka biktimen egoeraz jabetzeko eskubiderik. Norgehiagoka politikoan ez da dena zilegi. Onartezina da, erabat, biktimen samina alderdikeriaz erabiltzea. Ez da bidezkoa biktimak inork inoren kontra arma gisa erabiltzea. Ez da bidezkoa biktimenganako elkartasuna inork ideia, proiektu edo arrazoi politi-ko jakin bati lotzea. Aniztasuna errespetatu behar da, biktimen artean ere, gizar-tean gertatzen den modu berean, aniztasuna baitago ideietan eta sentsibilitateetan. Biktimenganako elkartasunak doakoa izan behar du, bakoitzak defendatzen di-tuen ideia politikoak alde batera utzita; elkartasunerako arrazoi bakarra izan be-har dugu beti: giza duintasuna defendatzeko konpromisoa; besterik ez. Era horre-tara ulertzen ditu Gobernuak, bai biktimei begirunea erakusteko printzipio hori, bai eta horri lotuta datozkigun konpromiso guztiak ere. Esparru horren barruan jo-katuta hartuko dute erabateko osotasuna arlo honetan burutu nahi ditugun neurri eta programa guztiek.

3. EGINDAKO KALTEEN ORDAINA EMATEA

Erabateko ordaina

Terrorismoak eta giza eskubideen urraketak gure herrikide askori ekarri dizkieten galera batzuk ezin dira inola ere berreskuratu; ez dute atzera bueltarik, eta ez dago inolako planik horren ordainik eman dezakeenik. Horren jakitun gaude; baina, hala eta guztiz ere, proiektu honen funtsezko abiaburu gisa hartu behar dugu, nola ez bada, bere onera ekarri litekeen guztia ahal den neurrian konpontzeko konpromisoa. Esan nahi dugu oso garrantzi handikoak direla, jakina, era guztietako laguntzak, ekonomikoak, materialak nahiz bestelakoak, baina, horrekin batera, eta oso modu berezian gainera, azpimarratu behar dugu lehentasunezkoa dela ordain morala ematea, eta, horri lotuta, oroimena eta elkartasuna eskaintzea, duintasuna eta aitormena adieraztea, justizia eta iraganari buruzko interpretazio kritikoa, publikoa eta konpartitua egitea. Biktima guztiei erabat eta osotasunean ordaina ematea, horixe da gure borondatea. Hona hemen, bada, abiaburu honek eskatzen digun lehendabiziko konpromisoa.

Erakundeen arteko koordinazioa

Erakundeen arteko koordinazioak, zailtasun guztiak gaindituta, administrazioaren atal eta maila guztiak lankidetzan eta eraginkortasun-logika berean jarri behar ditu, betiere, guztion artean helburu bakar bat erdiestearren: biktima guztiei laguntza ematea, beren inguru politikoa nahiz erasoaren jatorria edozein dela ere. Ezin gara ibili bakoitza bere aldetik, gure indarrak alferrik galtzen, edo lan bera bi aldiz egiten. Beharrezkoa da elkartasuna sozializatzea, eta ikusteko moduan gorpuztea, bake- eta humanizazio-kulturaren balioak zabalduta gizartean. Erakundeen arteko lankidetzak, beraz, herritarren parte hartzea sustatu behar du, eta koordinazioa estutu behar du gizarteko eragileekin, batez ere, afektatuen elkarteekin eta bakearen nahiz giza eskubideen alde lan egiten duten erakundeekin.

Etengabeko jarduna

Gobernuak plan honen bitartez biktimei begirunea eta laguntza emateko ekimena nahi du sustatu, eta horretarako oinarriak ezarri, jardun horrek etorkizunean ere iraun dezan denboran barrena. Kontua ez da une konkretu honetan ekimen-multzo jakin bat bultzatzea, besterik gabe; gure borondatea da sufrimenduaren oroimen hori, sufritu dutenekiko elkartasun hori eta giza eskubideen defentsa hori betiko izatea, gure gizartean egunero zabaldu beharreko ardura eta etengabe gogoratu beharreko ikasgaia izatea, bai guretzat, bai datozen belaunaldikoentzat ere. Konpromiso hori gureganatzea ere, neurri batean behintzat, bada egindako kalteari ordaina emateko

tea. Planaren bitartez bideratzekoak diren ekimen asko eta asko filosofia honetan daude oinarrituta.

4. ELKARREKIN BIZITZEA ETA ADISKIDETZEA

Gaur bertan hasita

Euskal gizarteak tirabira gogorak eta gatazka politiko handiak bizi izan ditu urte askoan, etenik gabe eta modu iraunkorrean. Egia esanda, ernegazioa eta amorrua handiegia izan dira gehiegitan, edozein gizarte demokratikotan bidezkoak izan litezkeen maila guztiak gaindituta; eta aitortu beharra dugu gure bizikidetzaren kalitatea eta elkarrekin bizitzeko modua nabarmen hobetu litezkeela, zalantzarik gabe. Ezinbestekoa da, beraz, gaur bertan lanerako oinarriak ezartzen hastea, bihar-etziko bizikidetzaren politiko eta soziala gero eta hobea izan dadin, eta elkarrizketa, tolerantzia, errespetua eta adostasuna izan daitezen beti arlo politiko eta sozialean jarduteko jarraibideak.

Indarkeriak eta terrorismoak oinaze- eta sufrimendu-aztarnak utzi dituzte han eta hemen gure gizartean, eta biktimek zuzenean dakite horren berri. Iragana gogoratzeko oroimena behar da, oroimen kritikoa eta egiazkoa, eta emandako mina leuntzeko aitormena ere behar da, horiexek baitira etorkizuna eraikitzeke oinarriak. Planaren laugarren abiaburu honen bidez, hain zuzen ere, guztiok nahi genukeen bizikidetzaren hori bideratzeko egoerak eta baldintzak sustatu nahi ditugu. Bihar-etzi elkarrekin egokiro bizitzeko modua izango dugu, baldin eta, gaur bertan hasita, horra iristeko bidea urratzeko gai bagara.

Gizartetik abiatuta.

Abiaburu horrek, baina, ez du esan nahi biktimak inolako «betebehar moralik» duenik bere erasotzailearekin adiskidetzeko, nahiz eta, oker egonda, inork aurkakorik esan duen askotan. Biktimak ez du horrelako betebeharririk, bestela, zama izugarria utziko genukeelako, bidegabe erabat, biktimen bizkar gainean. Adiskidetzaren lortu behar dela diogunean, ez dugu esan nahi ezinbestean denok lagun eta adiskide izan behar dugunik, ez; elkar errespetuz tratatu behar dugula, hori besterik ez dugu esan nahi. Adiskidetze horrek, batez ere, ausardia beharko du; bai, bidegabekeriak egiteagatik eta giza eskubideak era batera nahiz bestera urratzeagatik barkamena eskatzeko gai direnen ausardia.

Gizarteak ere izango du bere ardura, aurrerapausoak eman behar baititu bizikidetzaren kalitatea hobetzeko bidean; horretarako, iraganari buruzko interpretazio kritikoa hausnartu beharko du, eta, batez ere, beharrezko diren mekanismo guztiak ja-

rri beharko ditu martxan hezkuntza-arloan, horixe baita tresna egoki-egokia eta eragingarria gure arteko errespetu- eta tolerantzia-mailak hobetzeko.

Hezkuntzatik abiatuta

Hezkuntza-arloan landu beharreko jardunak dedikazio eta trataera berezia merezi du. Ezinbestekoa da bakearen kulturak dakartzan balioak zabaltzea eta sustatzea. Alegia, nahitaezkoa da era guztietako pentsamoldeak, jardunak eta ekimenak sustatzea eta bultzatzea, gizakien oinarrizko eskubide eta askatasunak defendatzeko eta bermatzeko balioak gero eta gehiago sendotu eta finka daitezen gure gizartean, betiere, oinarrizko eta elkarren osagarri diren bi kontzeptu hauek abiapuntu direla: berdintasunaren printzipioa eta ezberdintasunaren errespetua.

Gure arteko auziak era baketsuan konpontzen laguntzen diguten tresna horiek erabiltzen eta sendotzen ikasi behar dugu. Eta horrek esan nahi du bakea eta bizikidetzatza sustatzeko hezkuntza-proiektu zabal bat bultzatu behar dugula aurrera begira. Hezkuntza entzunda, guztioi datorkigu burura hezkuntza akademikoa, eskolakoa, baina, horiez gainera, gizartean, familian eta elkarteetan eman beharreko heziketa, edo heziketa publikoa eta politikoa ere ez dira ahaztu behar, gure gizarteak behar besteko tresnak eta baliabideak izan ditzan erabilgarri, auziak modu demokratikoan eta baketsuan konpondu ahal izateko.

BOST ARDATZ ETA IBILI BEHARREKO BIDE BAT

1. ardatza: Giza eskubide guztiak defendatzea eta sustatzea
2. ardatza: Terrorismoaren biktimei elkartasuna erakustea
3. ardatza: Oroimen historikoa berreskuratzea eta frankismo-garaiko biktimei ordaina ematea
4. ardatza: Askatasun nahiz eskubide zibil eta politikoen alde lan egitea
5. ardatza: Torturari aurre hartzea eta atxilo nahiz preso hartutako pertsonen eskubideak errespetatzea

Ibili beharreko bidea: «Bakeari eta bizikidetzari begira hezte. Adiskidetzea»

1. ardatza

GIZA ESKUBIDE GUZTIAK DEFENDATU ETA SUSTATZEA

1. AURREKARIAK, OINARRIAK ETA PRINTZIPIO POLITIKOAK

1.1. Aurrekari batzuk

- «Bakerako bidea: elkarbizitzarako bilgune bat» (*Euskalduna Jauregia, 2000ko ekainaren 1a*).
- «Bake eta Bizikidetzarako ekimen politikoa» (*Eusko Legebiltzarra, 2000ko urriaren 19a*).
- «Euskal gizartearen konpromiso demokratikoa» (*2000ko urriaren 25a*).
- Gernikako adierazpena, «Pertsona guztien giza eskubideen eta askatasunen aldeko konpromiso etikoa» (*Gernika, 2000ko abenduaren 20a*).
- «Indarkeriarik ezaren eta Elkarrizketaren aldeko Konpromiso Soziala. Konpromisua» (*Donostia, 2001eko otsailaren 8a*).
- Eusko Legebiltzarrean, bakegintza eta normalizazio politikoaren alde onetsitako ebazpenak (*2001eko irailaren 28ko Osoko Bilkura*).

1.2. Oinarriak

Giza eskubideek beren formulazioan bilduta dituzte balorazioetan eta arauetan izan beharreko adostasunak, horiexek izan behar dutelako, gizakiaren duintasunean oinarrituta, gizartearen eta bere Erakundearen ardatz eta arau. Adostasun horiek nazioen artekoak dira, estatuz gaindikoak, unibertsalak izan nahi dutelako, eta, hizkuntza berri batez, justiziaren eta elkartasunaren betiko idealez hornitzen gaituztelako. 1948ko abenduaren 10eko Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsaleko 1. artikulua adierazten duenez «gizon-emakume guztiak aske jaiotzen dira, duintasun eta eskubide berberak dituztela; eta ezaguera eta kontzientzia dutenez gero, elkarren artean senide legez jokatu behar dute».

Giza duintasuna da, beraz, muin eta egiazko giltzarri; giza duintasunak babestuta egon behar du beti, egoera edozein dela ere, eta ez du inoiz bazterkeriarik onartu behar, arraza, kolore eta jatorri etniko edo nazionalarengandik zein, hizkuntza, erlijio, ideologia edo sinismen, sexu, sexu orientazio, osasun-egoera, gizarte-jatorri edo beste edozergatik.

Oraindik amaitu ez den prozesu historiko luzean finkatuz joan diren eta, gizaki ba-koitzaren garapen pertsonal, sozial eta kolektiboa ziurtatzera zuzendutako tresnak izateari uko egin ez dioten eskubide-taldeen aitormena dakar berarekin, zuzen-zuzenean, giza duintasunarekiko begirune horrek. Horrexegatik, honako xedea izan beharko du giza eskubideen interpretazioak azken batez: nortasun, talde bateko kide izate eta kultur zaletasun ezberdinak itoko ez dituen —bateratu eta suspertu, baizik— elkartasunean eta berdintasunean oinarritutakoa ikuspegi ireki bati jarraiki, gizakien erabateko garapena ahalbidetu eta sustatzea.

Testuinguru honetan, gizaki guztien eskubide oro sustatzearen aldeko apustua eginenez gero, esaten ari gara giza eskubideen kultura onartu, eta bere egiten duen talde-subjektu bat gizartean eta erakundeetan osatu nahi dugula berresten ari garela. Gizarte- eta politika-arloan antolaketa-eredu jakin batean oinarritzen gara, gure ardatz, giltzarri eta jarraibide baitira bai Nazioarteko tresnarik unibertsal eta garrantzitsuenak —1948ko Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsala; 1966ko Eskubide zibil eta politiko eta ekonomiko, sozial eta kulturaleri buruzko nazioarteko hitzarmenak— bai 1950eko Giza Eskubideen Europako Hitzarmena ere. Izan ere, Europako Hitzarmen horrek Europarako egiazko Konstituzio bat dakarkigu, eta horra garamatza; eta ukaezinezko eskubideak eraginkortasunez aitortu eta bermatzeko estandarrak eransten ditu, bai Giza Eskubideen Europako Auzitegiaren jurisprudentziaren bideari jarraiki, bai 1978ko Espainiako Konstituzioaren 10.2. artikulua bitartez.

Dena den, eskubide-multzo zatiezin bat ordezkatzeko du ondare horrek, horietan behinena bizitzarekiko begirunea izanik, eskubide hori onartu eta babestu gabe, ezin baitira besteak gauzatu. Beraz, hasiera-hasieratik bizitza eta askatasun zibil eta politikoak errespetatzearekin, bizi-proiektuaren lehen urratsa ematen ari da, hori gabe ezin baita garapen pertsonalik bideratzen hasi. Horrexegatik, balioen hierarkian garrantzien maila gorena hartzen du horrek edo, nahiago izatekotan, lehen oinarriarena, horrela ezean, bizitzeko giza baldintza duinek ez dutelako lekurik. Bizimodu hori erabat garatu ahal izateko, haatik, ekonomia- eta gizartebaldintza jakin batzuk beharko dira —bigarren mailako eskubideak—, baita elkartasun-bokazioa ere, ezinezkoa delako egiazko justizia batera iristea, baldin eta erabateko justizia lortzen ez bada, edo munduaren antolaketan elkarreragina eta elkarrekiko erantzukizuna kontuan hartzen ez bada. Ondorioz, nazioarteko esparruan, banakako eta taldeko ikuspegiari ere erreparatu behar dio pertsonaren eta bere duintasunaren garapenak, alegia.

Guztionez giza eskubide oro sustatzeko eta defendatzeko, denok horiei atxiki eta horien alde lan egiteko konpromisoa hartu beharko dugu, aitzakiarik edo baldintzapeko atxikimendu partzialik gabe. Gaurko egunean, eskubide horiek geureganatu edo sustatzeko, halaberrez defendatu edo bultzatu beharko ditugu. Nolanahi ere, babes horrek ezin izango du inoiz indarkeriaren adierazpide izan, eta, gatazkak konpontzeko, betiere, bide baketsu eta demokratikoak erabiltzera bideratuko gaitu.

1.3. Jarduteko printzipio politikoak

- *Pertsona guzti-guztien bizitzarekiko eta giza eskubideekiko begirunea aldarrikatzen dugu, salbuespenik gabe.*
- *Indarkeriako eta banakako zein taldeko giza eskubideen aurkako ekintza eta adierazpen guztiak gaitzesten ditugu.*
- *Gatazkak ebazteko bide baketsu eta demokratikoak baino ez erabiltzearen aldeko apustua berretsi nahi dugu.*

2. KONPROMISOAK ETA EKIMENAK

2.1. Giza eskubideen inguruan hausnarketa, sentsibilitatea eta prestakuntza emateko ekimenak

- *Udalaren arloan gizartea sentsibilizatzeko programak bultzatzea, programa horiek giza eskubideekiko, eta bereziki, bizitzeko eskubidearekiko begiruneari buruzkoak izanik*

Udalekin elkarlanean, koordinatuz eta beren autonomia erabat errespetatuz, herritarrak giza eskubideen arloan hausnartu, prestatu eta sentsibilizatzeko jardungo diren agenteen sarea sortzea. Udalaren arloan eta gai honen inguruan herritarrekin zuzenean jardutea ahalbidetuko duen lehen mailako koordinazioa ezartzea, elkarlan hori, aldi berean, homogeneoa eta udalerrri guztiekiko sare bat osatuz eratuko delarik. Honela, sarrera biko bidea izango litzateke sarea: batetik, udalez kanpokok ekimenak jaso eta proiektatzeko bidea eta, bestetik, toki-administrazioak berak abiarazitako ekimen berriak sustatzekoa. Agenteek, orobat, giza eskubideen alorreko udal-politikak eraginkortasunez egokitzeko aholku- eta sustapen-lana ere egin lezakete.

Ekimen honen garapenerako, hasiera batean, honen aldeko jarduerak dagoeneko abiarazi dituzten udalen esperientzietan oinarritutako ereduak proiektua izango da abiaburutzat.

- *Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsalaren 60. urteurrena dela-eta, Nazioarteko Biltzar bat burutzea*

Justizia eta giza eskubideekiko errespetua oinarri izanik, nazioarteko bake-esparru berri bat sortzea xede zuen eta, garai berri bati hasiera eman zion Nazio Batuen Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsalaren 60. urteurrena ospatuko da 2008. urtean. Gure artean ere, espiritu hori iraunarazi eta berrestea da Biltzarraren helburua; bakea lortzeko jomuga eta gizartean justizia-oinarri sendoak finkatzeko behar den gogoia elkarri lotzen eta uztartzen ahalegindu behar du.

- *Giza eskubideen, segurtasunaren eta askatasunaren arloan hausnartzeko nazioarteko topa-gunea antolatzea*

Giza Eskubideen Gutunaren inguruan sentsibilizatzeko eta jendartean zabaldu ahal izateko, egun aurrean ditugun arazo eta erronka berrietara moldatuta aurkeztu beharko zaie gutun horren edukia herritarrei. Giza eskubideen arloko adituak elkartzea izango du topa-gune honek jomuga, egungo tentsio-egoeran, segurtasun-eskakizunen inguruan eta ukaezinezko askatasun-eremuetan oinarritzeko jarraibidea eman diezaguten. Euskal gizarteari giza eskubideak eta horien helmena eta edukia aurkeztu nahi diogu, bai geure errealitatearen berariazko egoerari lotuta, bai inguruan ditugun kultur eremu komunei lotuta.

- *Giza Eskubideen arloan nabarmendutako pertsonak saritzeko, urtero René Cassin saria antolatzea*

Ibilbide pertsonal zein profesionalean, Giza Eskubideak sustatu, babestu eta hedatzeko konpromisoa erakutsi duten pertsona edo taldeak nabarmentzea du xede urtero ematen den René Cassin sariak. Baionan, 1887. urtean jaiotako René Cassinen oroimenean ematen da sari hori, 1948ko Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsalaren sustatzaile nagusia izateaz gain, 1950. urteko Giza Eskubideen Europako Hitzarmenean ere funtsezko eginkizuna izan baitzuen. Bakearen Nobel Saria jaso zuen 1968. urtean, eta Estrasburgoko Giza Eskubideen Nazioarteko Institutua sortzera bideratu zuen sarian jasotako dirua.

- *Nazio Batuen Goi Komisarioaren Bulegoarekin Lankidetzaren Hitzarmena ezartzea, Giza Eskubideen arloan adituak prestatzeko egitasmoak garatze aldera*

Ezinezkoa da giza eskubideak erabat defendatu eta sustatzea, tartean gaiaren inguruko nazioarteko erakunde garrantzitsuenak ez badaude eta beraiekin koordinatuta jardun ezean. NBEko organo nagusia da Giza Eskubideetarako Nazio Batuen Goi Komisarioa; eginkizunen artean ditu oinarritzeko eskubideen kultura bultzatzea eta, biktimen ordezkariarena eginez, kultura horren aldeko aitzindari-lana egitea. Horretaz gain, Nazio Batuen baitan giza eskubideen inguruko jarduerak garatzea eta bere egitasmoa mundu osoan zehar zabaltzea ditu xede. Hitzar-

menarekin, ordea, giza eskubideei buruzko informazioa elkarri jakinaraztea eta, jarduerak eta ekimenak nazioarteko sareekin koordinatzea ahalbidetuko dituzten adituak prestatzeko programak ezarri nahi dira.

- *Urtero, Giza Eskubideen Adierazpenari buruzko sentikortzekanpaina garatzea*

Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsalaren urteurrena dela-eta, hiritarrak, artean lortu gabeko erronken inguruan sentsibilizatu eta areago kontzientziatzea helburu izango duen kanpaina bat antolatzea, urtero jomuga berezi bat ezarriko duen kanpaina bat taxutze aldera, Euskal Erakundeek gai honen inguruan sustatutako gainerako jarduera guztien oinarri izan dadin eta, horiek guztiak, koherente izan daitezten. Gainerako ororen jarduera-lerroa ezarriko duen markoa izango da kanpaina; horrela, asmoak pixkanaka edukiz jantziko dira, eta giza eskubideen sustapenaren inguruko bestelako programa eta jardueren bitartez indartu.

2.2. Giza eskubideak defendatzeko eta sustatzeko jarduerak

- *Kulturen arteko gizarte baten baitan, berdintasun-eta errespetu-balioak sustatzea*

Hegoafrikan 1960. urtean izandako triskantza gaitzestean, martxoaren 21a «Arraza Diskriminazioa Ezabatze Nazioarteko Eguna» izendatu zuen NBEko Segurtasun Kontseiluak 1966. urtean. Hegoafrikako Gauteng probintziako Sharpville hirian, apartheidean murgildurik, 69 manifestari hil eta 180 lagun zauritu zituzten, horien artean, emakumeak, gizonak, neskatilak eta mutikoak zeudela. Urtero, beraz, martxoaren 21ean, arrazismoaren eta xenofobiaren aurkako erakunde-ekimena garatuko da, edozein gizarte anitz, solidario eta irekiren oinarriak urratzen dituzten fenomenoak diren heinean. Giza Eskubideen Zuzendaritzak sustatuko du gizartea sentsibilizatzeko ekimen hezigarri hau, Hezkuntza Sailarekin eta Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Saileko Inmigratio Zuzendaritzarekin elkarlanean. Berdintasuna eskubide unibertsal gisa aldarrikatu eta, era guztietako diskriminazioak galarazi beharko dira hasiera batean, ezinbestez, historikoki etorkinez osatutako euskal gizarte batean, etorkinen kolektiboen ekarpenaren balioa nabarmendu behar delako, elkarrekin sortutako etorkizunari ekarri diotena, positibo eta aberasgarria izan baita.

- *Giza eskubideen alde diharduten gizarte-erakunde eta mugimenduei laguntza bideratzea*

Eusko Jaurlaritzak, giza eskubideen betearazpen-estandarrak gero eta eraginkorrago bete daitezten, gizarte zibilak eta gizarte-mugimenduek duten ukaezinezko eginkizunaren jakitun, bakearen kultura, giza eskubideak eta balio demokratikoak finkatzea, zabaltzea eta horietan sakontzea helburu nagusi izango duten proiektuak garatzera berariaz zuzendutako sustapen-lerroak ezarriko ditu, Bakea

eta Justizia bezalako balioetan oinarritutako euskal gizarte baten alde egitearren, balio horiek bizikidetzaren funts behinenak baitira.

- *Giza Eskubide guztien alde lan egingo duen eta horiek betetzen direla zainduko duen Nazioarteko Behatokia bultzatzea*

Errealitatea aztertu, bidegabekeriak salatu eta era guztietako ekimen publiko eta pribatuak proposatzeko tresna izan dadin sortuko da Giza Eskubideen Nazioarteko Behatokia. Eskubideak eta Askatasunak ea benetan errespetatzen eta betetzen diren, eta horri lotuta gertatzen diren egoerak behatu, ikertu, ezagutu eta aztertzea izango dira bere eginkizun nagusiak. Ezagutza-oinarri honetatik abiatuz, etorkizuneko agertokiak proiektatu, herri-aginteei eta, oro har, gizarteari aholkularitza bideratu eta eginbehar hezigarri eta hedatzaileak garatuko ditu Behatokiak. Berezi, Euskadin giza eskubideei buruzko berezko politika bat koordinatu eta sustatzeko funtsezko tresna izango da, sustatzeko ahaleginetan diharduten nazioarteko erakunde eta sare nagusiekin elkarlanean aritu beharko dela jakinik.

Behatokiaren egiteko guztiak abiarazi baino lehen, hasierako fase bat izango da, dagozkion eginkizun ezberdinei zatika eta aldizka ekiterik egon dadin.

- *Gatazkei aurrea hartzeko europar sarearen aldeko laguntza eskaintzea*

Munduko 15 eskualdetako gizarte-erakunderen ordezkariak osatzen dute Global Partnership for the Prevention of Armed Conflict deritzon nazioarteko sarea. Erakunde horren barruan, Gatazkak Prebenitzeko eta Ebazteko Europar Plataformak, gatazkei aurrea hartzearen eta bakea eraikitzearen alde lan egiten duten Europako erakunde-sare bat zuzentzen du. Eusko Jaurlaritzak jakin dakienez, gatazkak giza eskubideen kulturari jarraiki ebatzi nahi izatekotan, erantzun baketsua eskaini eta indarkeria alde batera utzi beharko da, eta horrexegatik, gizarte-mugimendu eta taldeak errespetatze aldera, europar sare horren jarduerak bultzatuko ditu.

2. ardatza

TERRORISMOAREN BIKTIMA GUZTIEI ELKARTASUNA ERAKUSTEA

1. AURREKARIAK, OINARRIAK ETA PRINTZIBIO POLITIKOAK

1.1. Aurrekari batzuk

- Terrorismoaren Biktimei Laguntzeko Zuzendaritza sortu zen (*2001eko abenduaren 26a*).
- Pertsona guztiek bizitzeko eta askatasun eta segurtasunez bizitzeko duten eskubidearen aldeko Adierazpen Instituzionala (*Gernika, 2002ko otsailaren 28a*).
- Eusko Legebiltzarrak 2002ko ekainaren 28an onartu zen Legez besteko Proposamen baten bitartez berretsi zituen Euskal Herriko Segurtasunerako Batzordearen Hitzarmenak.
- Eskubide eta Askatasunaren aldeko eta Jazarpen Indarkeriaren aurkako Planaren onespena (*2003ko uztaila*).
- Eusko Legebiltzarraren 2003ko ekainaren 25eko Ebazpena. Honen bitartez, legebiltzar-talde guztiek, aho batez, terrorismoaren biktimen egoera hobetzeko neurri-multzo bat onartu zuten.
- Eusko Legebiltzarraren 2005eko otsailaren 18ko Ebazpena. Honen bitartez, terrorismoaren biktimen inguruan Giza Eskubideen eta Hiritarren Eskabideei Eran-tzuteko Batzordeak landutako txostena onartu zuten.

1.2. Oinarriak

- *Indarkeria gaitzetsiz eta sortutako kaltea aitortuz*

Hogeita hamar urte luze darama euskal gizarteak terrorismoaren indarkeria jasan eta pairatzen. Frankismoaren diktaduraren atzetik, eta ondorengo demokraziarekin ere, ez ziren armen hotsak isildu, euren ideal politikoen alde bide baketsu eta demokratikoak erabiltzeari uko egin zioten pertsona batzuen armenak, alegia. Horiek, areriotzat dituztenei, euren ideia politikoak defendatzeko aukera, hilketaren, bortxakeriaren eta mehatxuaren bitartez galarazi baitiete.

Euskal herriaren izenean eta berori defendatzeko egin omen dute; hemen bizi garen guztiok gurea dugun Euskal Herriaren alde eta defenda ditzakegun ideia eta proiektu politikoak kontuan izan gabe. Dirudienez, gure herria defendatzeko eta gure izenean, euskal gizartearen izenean, erail, bahitu, estortsio egin eta mehatxatu dute.

Hala ere, eta horrela izanagatik, denbora horretan zehar emozioak mindu eta hunkituta zituen gizartea, urteak joan eta urteak etorri, beldurrak, ohikeriak eta fatalismoak jota, eman diren atentatu terroristei so egon da. Terrorismoaren biktimek pertsona maite bat galtzeaz gain, inguruan zuten erkidegoaren zati handi baten gaitzusteak pairatu dute. Biktimak eta euren oroimena ezabatzeko ahaleginari eutsiz, distantzia, utzikeria, axolagabekeria eta zuribide ikaragarriak lortu dituzte kriminalek ondorio doilorren artean.

Zorionez, terrorismoaren biktimek gaur egun duten garrantziaz eta, horiei begirunea eta elkartasuna erakusteko dagoen beharraz jabetuz joan dira gizartea eta euskal erakundeak ere, azken urteotan.

Biktimen kolektiboek eurek, elkarte bakezaleek eta tokiko herrierakundeek sus-tatuta, biktimak aitortu, gogoratu eta omentzeko ekintzak eta ekimenak areagotu egin dira. Horiei, gainera, Eusko Jaurlaritzak, Eusko Legebiltzarrak eta, oro har, euskal alderdi politikoek eman dituzten aurrerapauso nabarmenak gehitu behar zaie.

Terrorismoaren Biktimei Laguntzeko Zuzendaritza sortu zen 2001eko abenduan, eta, horrela, kolektibo horiei zuzendutako laguntzak kudeatzen zituen adminis-trazio bulegoari maila politikoa eman zitzaion. Garai horretan hastera zihuan legegintzaldirako programaren ardatz gisa, Lehendakariak bizitzeko eskubidearen eta giza eskubideen eta askatasunen alde hartutako konpromiso etikoari erantzuten zion ekimen honek, programa horrek oinarritzko elementuen artean, biktimei laguntzea baitzuen.

Erakundeen eta alderdi politikoen arteko hitzarmenak adosteko beharra zegoen, terrorismoaren biktimekiko elkartasuna adieraztea ahalbidetzarren eta bizitzeko eskubidearen aldeko mezu eta ekimen unitarioak zehaztearren. Beharra zegoen, halaber, indarkeria terroristaren mehatxupearan bizi ziren kolektiboen eskubideak eta askatasunak babestuko zituzten berariazko babes-neurriak ezartzeko, eta horien erantzun gisa, hainbat adierazpen eta hitzarmen adostu ziren. Hiru hauek dira denen artean nabarmen ditzakegunak:

- «Pertsona guztiek bizitzeko eta askatasun eta segurtasunez bizitzeko duten es-kubidearen aldeko Adierazpen Institutuzionala», Gernikan, 2002ko otsailean, Eusko Jaurlaritzako, Bizkaiko eta Gipuzkoako foru aldundietako eta EUDEL-eko ordezkariak hitzartutakoa.
- Eusko Legebiltzarrak urte bereko ekainean berretsi zituen Euskal Herriko Se-gurtasunerako Batzordearen 2002ko maiatzaren 21eko Hitzarmenak.
- «Eskubide eta Askatasunaren aldeko eta Jazarpen Indarkeriaren aurkako Pla-na», 2003eko uztailen Jaurlaritzaren Kontseiluak onartu zuena.

Aldi berean, eta legebiltzarrean, 2003an eta 2005eko otsailean, hurrenez hurren, onartutako hauek ere nabarmendu behar dira: Terrorismoaren biktimen egoera hobetzeko neurriei buruzko Legez besteko Proposamena, eta Terrorismoaren biktimen egoerari eta beharrei buruzko azterketaren inguruan Giza Eskubideen Batzordeak landutako txostena.

Egindako guztia eginda ere, ez gaude oso gustura egindakoaren balantzearekin. Aurrera egin dugula badakigu ere, biktimen arazolari gizartearen, politikaren eta erakundearen erantzun handiago eta hobea eskain nahi eta behar diogula eta, bereziki, oraingoa bezalako uneetan, epe laburrera bakea izateko aukerez, itxaropen-tsu eta ilusioz, mintzatzen den honetan.

Eusko Legebiltzarrak 2005eko otsailean onetsitako hitzarmen horren atarikoak dioen legez: «Gizarte honek ezin du porrot eginda bukatu; instituzioek kontzientzia hartu behar dute, bultza egin behar dute kalitate eta berotasun etiko militantea lortzeko».

Batetik, bidezkoak diren kalte-ordain material eta psikologikoak ematera zuzendutako politikei eutsi behar zaie. Aldi berean, euren duintasun morala babesten saiatu behar da, indarkeria terrorista erabat eta etengabe gaitzeste argi eta garbi adieraziko duen arrazoibide eta praktika politikoa ezarri.

Indarkeria terroristaren arazoa konpontzeko, eta gure historiaren hain orrialde beltzari agur esateko, ezinbestekoa eta oinarri-oinarrizkoa da guztiok argi izatea biolentzia erabiltzea ez dela zilegi, eta, zehatzago esanda, ez dela inoiz egon indarkeria justifikatzeko moduko arrazoirik.

- *Biktimen ikuspegitik*

Bestalde, terrorismoaren biktimei aitorten politiko, moral eta soziala emateak arrazoibide zehatzak lantzea eskatzen digu; eta planteamendu horrek, biktimak kontuan izateaz gainera, euren ikuspegira hurbilduz «beren ikuspegiak» jabetzen saiatu behar du. Biolentziaren arazolari ekiteko orduan, egiazko arrazoibide etikoa sortzeko, biktimen ikuspegitik egin behar dugulako uste osoa dugu. Herri baten errealitatea biktimekin eta biktimarik gabe berbera ez bada, horiek duten ikuspuntua errealitatearen alderdia da, eta kontuan izan behar da, egiaz jabetzeko ezinbesteko baldintza baita.

Baina hunkiberatasun hutsean ez erortzeko, erakundearen eta politikaren mailara heldu behar da biktimen ikuspegi onartu hori.

Ikuspuntu horretatik, hori onartzetik eta biolentziaren aurka elkarrekin eginez baino ez dute adiskidetze-prozesu horiek lekurik izango, adiskidetzea horrenbeste behar duen gizarte batean.

Etikaren ikuspegitik, beren justizia-eskakizunei dagokien ordaina eman nahi diegu eta, gizartearen ikuspegitik, berriz, biktimak bakeprozesuetako protagonista ordezkaezinak dira. Beraz, helburu politikoak lortzeko indarkeria erabiltzearen aurkako konpromiso sendotzat onartzen dugu beren protagonismoa, herriaren borondatea ordezteko edozein asmoari uko eginez. Protagonismo horrek, eurei bakarrik ez, gu denoi, bakean bizi nahi duen gizarte honi onura ekarriko diolako.

Ildo honetan, terrorismoaren biktimak goitik behera aitortzeko bidean aurrera egiten jarraitzeko beharrezkoa den ahalegina egiteko borondatea berresten du Eusko Jaurlaritzak.

ETAk Euskadin gauzatu duen indarkeria terroristak oinaze itzela sortu duela adierazi behar da. Indarkeria horren zuzeneko biktimak, kantitatez, kolektibo garrantzitsuena izateaz gain, terrorismoaren beraren izateko arrazoian bertan oinarritzen den bidegabekeriaren adierazpenik nabarmenena ere bada.

Hala ere, ezinbestekoa da onartzea, euskal gizartean terrorismoaren fenomenoak, zuzenean edo zeharka, ondorioztatutako bestelako oinazeak ere badirela. Oro har, ETAREN biktimek izan duten aitopen eta laguntza sozial eta politikoa bereganatu ez duten beste biktima batzuk ere badira. Aitopen falta hau euskal gizarteak biktima hauekin dituen zor moral historikoa da, eta Jaurlaritzak lehentasunez garbitu nahi du zor hori. Dena den, hori ez da biolentziak eragindako oinaze orori aldi berean arretea eskaintzeko oztopo, bakoitzari berea emanez bada ere, erabat ezberdinak baitira horien ezaugarriak eta izaera.

- *Justizia eta ordaina emateko borondatea erakutsiz*

Zentzu honetan, euskal gizarteak eta bere Erakundeek terrorismoaren biktimekin egin duten zorraren jabe izanik, Eusko Jaurlaritza damu da eta atsekabez onartzen ditu hainbeste urtetan terrorismoaren biktimek pairatu dituzten urruntzea, bakar-dadea eta sufrimendua, urte horietan beldurrak eta axolagabekeriak herritarren adoreari eta biolentziarik fanatikoena pairatzen zutenen alde irmotasunez ekiteari bidea mugatu baitiete.

Jakin badakigu, ETAk, bere ekintza kriminala legitimatu nahian eta inoiz berea izan ez duen eta merezi izan ez duen ordezkariatza usurpatuz, Euskal Herriaren izenean hil, mehatxatu eta estortsio egin duela.

Horregatik guztiarengatik, bere egiten ditu Eusko Jaurlaritzak *egindako kaltearen oroimen, justizia eta aitormena* eskatzeko aldarrikapenak, egun batean, ekintza terrorista baten ondorioz bizitzak erabat zapuzturik, ehunka familiek pairatu duten oinazearen ordainik zuzenena delako uste osoa baitauka.

Herri baten oroimena babesteko ikusmolde huts eta gizatiar batekin zerikusirik duen justizia historikoko arazoa da. Historia, borraroren esanetara eta bere zuri-

garriak legitimatuz kontatzeko litezkeen tentaldien aurrean, terrorismoaren biktimen duintasuna onartzea dugu antidotorik eraginkorrena. Azken batez, biktimen oroimena omentzean, gertatu den oro alferrik gertatu ez dela irmotasunez onartzea da eta datozen belaunaldiek, kriminalek erabilitako argudio berberak erabiltzeari uko eginez, bazterkeria isil-isilik pairatu zuten ehunka biktimek, indarkeria fanatikoaren biktimek, eskainitako prestutasunaren berri izango dutela bermatzen da.

Azken urteotan, biktimek azaldu duten jarrera eta erantzukizun moralak herri honen historiaren funtsezko adierazlea da, eta erakundeok, zintzotasun horren berri eman-go dela bermatu nahi eta behar dugu. Zentzu honetan, Eusko Jaurlaritzak bere egiten du Plan honetan, 2005eko otsailean Eusko Legebiltzarraren aipatu Ebazpenak jasotzen duen hausnarketa: «gizarteak erantzuna eman behar die biktimei, ez bakarrik hertsatuta edo preso gauzkan erru bat ordaintzeko, baita egoismo hutsez ere, biktimak izateak gutako bakoitzarengan eragiten duen zauria bera sendatzeko».

1.3. Jarduteko printzipio politikoak

- *Indarkeria- eta terrorismo-mota guztien aurrean erabateko gaitzespena azaltzen dugu, etikaren zein politikaren ikuspegitik*

Bizitzaren eta askatasunaren aldeko eta indarkeriaren eta terrorismoaren aurkako konpromiso irmoa berretsi nahi dugu. Printzipio hauek gure ekintza politikoaren euskarri eta funts dira.

- *Terrorismoaren biktimen oinazea erabat eta baldintzarik gabe aitortzen dugu, biolentziaz eta izuaz baliatuz burututako bidegabekeriarik deitoragarriena den heinean*

Gainera, biktimak aitortu eta, horiei laguntza eta elkartasuna erakusteko konpromisoa ere sendetsi nahi dugu, eta horien aitormen sozial, moral, politiko eta instituzionalaren alde etengabe lan egiten ari gara, horri esker, eman behar diegun tratu duina biribilduko baitugu.

- *Egindako kaltearen oroimena, justizia eta aitormen alorreko aldarrikapen guztien alde lan egiteko konpromisoa hartzen dugu*

Biktimen duintasunarekiko errespetutik, oroimenaren defentsatik eta justizia egiteko dagoen beharretik eta, sortutako kaltea aitortuz ekiten diogu gure konpromisoari, hiru elementu horiek bateratuz baino ezin izango dela biktimen bidezko interesak eta eskubideak behar bezala asebetu ulertuz. Gogobetetasun hau lortu ondoren baino ezingo zaio gizartearen adiskidetze-prozesu arrakastatsu batekin, denok tartean hartzen bagaitu ere, samin bidegabearen zoritxarreko protagonistak izan direnek, leku berezia izan behar dutelako.

- *Biktinek edozein bake-prozesutan duten funtsezko eginkizuna aitortzen dugu*

Biktimak bake-prozesuan egotea eta partaide izatea nahi dugu. Bizikidetzako bake-tsuaren euskarri irmoak, beren saminaren oroimena, beren oinaze eta prestutasuna baitira. Beraietaz oroitzeak, indarkeriari zilegitasuna kenduko dio; inoiz bidezkoa ez dela izan gogoraraziko digu eta, ondorioz, ezingo du, biktima errugabeen aurka indarkeria erabiliz defendatutako helburu totalitarioak bultzatuko dituen elkartruke politiko baten emaitza xede izan.

2. KONPROMISOAK ETA EKIMENAK

2.1. Oroimen historikoa. Aitormena eta egia

- *Udalaren arloan biktimei begirunea erakustearen alde egitea*

Gertuen ditugun kantsolamendua eta laguntza behar dugu egoera zailtan; hala ere, tamalez, gizarte-ingurune hurbilenaren urruntasuna eta ahanztura sentitu dute biktinek gehiegietan.

Horrexegatik, gure gizarteak terrorismoaren biktimei zor dien adore etikoa berreskuratzeko eginkizunak, hurbilen dituzten gizarteingurune txikienetatik hasi behar du, ez bairik gabe: hau da, udaletatik.

Horretarako, terrorismoaren biktimekiko elkartasuna eta begirunea adierazteari ekingo dioten ekintzak eta ekimenak antolatuko ditu Eusko Jaurlaritzak, EUDELekin elkarlanean, atentatuak pairatu eta biktimak izan diren udalerrietan.

Udal bakoitzak ezarriko du ekintza hauen edukia, eta horrek, auzokideen eta bertako erakundeen berotasuna, adiskidetasuna, elkartasuna eta aitormena ingurune gertueneko biktimei helaraztea izan beharko du xede, honela, nolabait, horien oroimenak bizirik iraun dezan.

Planteatutako helburuak bete daitezten, honelako aitopenen eta omenaldiek banan-banakoak eta pertsona zehatz baten ingurukoak izan beharko dute.

Biktimak ados badaude betiere, Euskadi osoan zehar sentimenduaren eta borondatearen adierazpena izan daitezela, begirunea erakusteko ekitaldi hauekin ahalik eta lasterren hasi nahi dugu.

- *Erakusketa ibiltariak sustatzea eta hedatzea*

Biktimen eta terrorismoak eragindako kaltearen oroimena bizirik mantentzeko helburu berberari jarraiki, eta, aldi berean, pairatu duten oinazea eta erakutsi duten prestutasuna berretsi nahian, Eusko Jaurlaritzak erakusketa ibiltariak hedatu

eta horrelako beste batzuk egitearen aldeko konpromisoa hartzen du, horien edukia aipatutako helburuak betearazten ahalbide dezaten.

- *Komunikabideetan kanpinak garatuz, terrorismoaren biktimei begirunea erakustea eta gogoan izatea*

Terrorismoaren biktimen onarpena gauzatzearen aldeko gizartepedagogia, ezinbesteko elementu bihurtzen da indarkeria terroristak biktimei ebatsi zien posizioa itzuli nahi dien edozein bake-politikatan. Honelako pedagogia eraginkorra izan, eta herritar guztiengan hel dadin, gizarte-hedabideetan kanpaina bat sustatuko du Eusko Jaurlaritzak, horretan, euskal gizarteari, biktimen aitortzea bakearen eta euskal herritar guztion arteko bizikidetzaren alde egiteko funtsezko aktibo baten antzera aurkez diezaion. Saminaren bidegabekeria izugarria eta berori erakusteko beharra helaraziko duen kanpaina.

Bakearen alde jardutean, gure artean bizi den samin pertsonala aitortzea eta bidegabekeria herriarengan bizirik iraunaraztea, horiexek izango dira Lehendakariak euskal herritarren etxe orotara igorriko dizkigun kanpainaren ardatz nagusiak.

- *Talde eta elkarten bidez, biktimen aitormena bultzatzea*

Biktimgana hurbiltzeko kanpainari eutsi nahi diogu eta, bereziki, biktimen talde eta elkarteengana urreratzekoa. Erresistentzien aurka eta jarrerak hurbiltzearen alde lan egingo dugu. Biktimek euren alde egingo dugun lana aitortu eta onartzean, zilegitasuna emango diote, eta adiskidetzeko bidean aurrera egiten lagunduko digun iritzitrukearen aldeko giroa sorraraziko du.

Terrorismoaren Biktimei Laguntzeko Zuzendaritzari egokituko zaio biktimen kolektiboari urreratzea, horretarako, terrorismoak eragindako pertsonak elkartzen dituzten erakundeekin harremanak eta bilerak gauzatuko ditu, edozein dela elkartearen jardura-esparru geografikoa.

Eusko Jaurlaritzak, euskal gizartearen izenean, terrorismoaren biktima guzti-guztiei eta elkarte horiek egiten duten lanari elkartasuna eta aitormena erakusteko mezu argi eta irmo hau helaraziko dio, hori baita, biktimen kolektiboengana hurbiltzeko prozesu honen funtsezko helburua. Aldi berean, Eusko Jaurlaritzan, dagokien arazoaren inguruan egiten ari den beharraren berri eman, eta tartean garatzen diren ekimen eta ekitaldi orotan esku hartzeko gonbita luzatuko zaie.

Xede berari eutsiz, Estatu osoko biktimen elkarteak eta kolektiboak elkartzeko, Lehendakariak zuzenduko duen topa-gunea antolatuko du Eusko Jaurlaritzak, terrorismoaren biktimei erakusten dien begirune moral, instituzional eta sozialarekiko konpromisoa berresteko eta euskal gizarte osoak, euskal herriaren izenean garatutako indarkeria terroristaren biktimei, azaldu duten eskuzabaltasunagatik zor dien errespetua aditzera emateko.

- *Terrorismoaren biktimei begirunea erakusteko jardunaldi instituzionala antolatzea*

Pairatutako oinazea eta duten adorea ekitaldi publiko eta ospetsu baten bidez airtortu nahi diegu biktimei euskal gizarteak eta ordezkatzeko dugun erakundeok, eta bi helburu betetzearren: batetik, eta konplexurik gabe, hainbatetan kaltetutako pertsonen elkartasuna eta laguntza ez erakusteagatik barkamena eskatzeko; eta, bestetik, biktimen oroimena omentzeko, gertatu den oro ez dela alferrik gertatu zintzotasunez helaraztearren, eta datozen belaunaldiek, indarkeria fanatikoaren biktimek, isilpean eta bazterkeria pairatuz, terroristen argudio berberak erabiltze-ari uko egin ziotenek, erakutsitako prestutasunaren berri izan dezaten.

Horretarako, Terrorismoaren Biktimei Begirunea eta Elkartasuna Erakusteko Jardunaldi bat antolatuko du Eusko Jaurlaritzak, euskal gizarteak terrorismoaren biktimei, justizia, duintasuna eta esker ona aitormenezko ekitaldi honen bidez, adieraz diezaien eta herrialde honen azken urteotako historian erakutsi dutena oroimenean bizirik iraungo duela erakustearren.

Jardunaldi honetan, gure herriko erakunde, politika, kultura edo erlijio arloko instituzio eta agenteen gonbidapena luzatu eta esku hartzeko eskatuko zaie. Ezin da alderdi eta erakundeen adierazpen politiko hutsa izan, zorra herritarrekin egin baita eta beraiek dira, ordezkari ororen bitartez, zor horren ordainaren hartzaile.

Aurten, 2006an, lehen aldiz ospatuko den Jardunaldi hau, urterokoa izango da, datozen urteetan gogoetarako eta oroitzapenerako gune izango delarik.

2.2. Arreta, ordaina ematea eta justizia

- *Terrorismoaren biktimekiko elkartasunari buruzko Legea sustatzea*

Eraginkortasunez jardungo da Eusko Jaurlaritza biktimen Txosten iraunkorrean, Eusko Legebiltzarrak, terrorismoaren biktimekiko Elkartasunari buruzko Legea onar dezan. Lege honek, Administrazioak ematen dituen prestazioak hobetzeaz gain, terrorismoaren biktimek pairatu duten sufrimenduak merezi duen omenaldi sentikorren adierazpen sakon eta zintzoan behar du izan.

Legeak, beraz, zentzu bikoitza izango du, batetik, materiala edo laguntza ematekoa, eta bestetik, moral edo politikaren arlokoa, azken honen bitartez, terrorismoaren biktimei aitormena, damua eta justizia erakusteko.

- *Herri Administrazioen eta biktimen arteko elkarriketa eta hurbiltasuna finkatzea*

Administrazioa eta biktimak hurbiltzen dituen Terrorismoaren Biktimei Laguntzeko Zuzendaritzak, gainera, terrorismoaren zartada pairatu duten pertsonekin harreman estu eta beroa dauka, eta beraiengana hurbiltzen da. Bisita eta topaketa

programa berezia dauka horrek zereginen artean, eta horien bitartez, kaltetutakoekin edo horiek osatzen duten taldeekin elkarrizketak izaten ditu.

Halaber, kaltetutakoen eta Eusko Jaurlaritzaren arteko komunikazioa sustatzearen, Terrorismoaren Biktimei Laguntzeko Zuzendaritzaren web orria abian jarri zen 2005. urtearen hasiera aldean. Nahi duten biktimekiko harremana bideratzeko tresna da, Administrazioak terrorismoaren biktimei arreta eta laguntza eskaintzeko asmoz eskura jartzen dituen baliabideak zuzen-zuzenean ezagut ditzaten. Aldi berean, badugu web gune honen bitartez, euskal gizarteak indarkeria terroristak jotakoen arazoekiko adierazten duten atxikimendua nolakoa den jakiterik.

Maila pribatuan, biktimek sentitzen dutena neurtzeko termometrotik onena izatea nahi dugu, erabakiak hartzeko hausnarketa- eta arretaprozesuetan, informazio horretaz baliatzerik izan dezagun.

- *Terrorismoaren biktimei eta euren elkarreei prestazio materialak eta diru-laguntzak bideratzeari buruzko politikak bere horretan mantentzea, eta hala badagokio, hobetzea*

Terrorismoaren biktimek pairatu duten kalte eta saminei bidezko erantzuna eman nahian, eta horien behar materialak asebetetzeko, diruzko laguntzen lerroari eutsiko dio Eusko Jaurlaritzak, baita kolektibo honen aldeko egitasmoak eta ekintzak garatzen dituzten elkarte eta erakundeei zuzendutako diru-laguntzak ere.

Zentzu honetan, ondorengo diru-laguntzen lerro hauek iraunarazi eta areagotuko dira:

— Osasun-laguntza eta arreta psikologikoa emateko programen garapena.

Tamalez, denborak ez du beti indarkeria terrorista pairatu dutenen zauri psikologikoak osatzen. Are gehiago, horietako askok, samina, oinazea baita sumindura ere, anonimaturik penagarrienean murgildurik bizi izan dutela kontuan hartzen badugu. Iragandako denborak iragaitearren, arazo psikologiek bere horretan irauteak, ahalegin handiago egitea eskatzen digu, eta hori erdie-tsi nahian, osasun-eremu honetan adituak prestatzeko mintegiak, topaketa zientifikoak, lan-taldeak eta prestakuntza-ikastaroak antolatuko dira.

Bereziki psikologiaren esparruko gero eta espezialista gehiago eta adituagoak izateko helburua lortzeari ekingo diogu, euren ahalegin guztiak biktimek dituzten arazoak ahal den kalitaterik onenarekin trata ditzaten.

— Biktimei eta euren senitartekoei zuzendutako gizarteratze-programen garapena.

Sarritan izan dituzte terrorismoaren biktimek lan-merkatura heltzeko arazoak. Batzuetan, hainbeste urtetan pairatutako bazterkeria zoliak eragin ditu, lanera-

tzearagotziz; beste batzuetan, biktima izate horrek eragindako arazo psikologikoen eskolan atzera gelditzea, eta ondoren, lan egonkorra bilatzeko zailtasun handiagoak izatea ekarri dituzte.

Zailtasun hauei aurre egiteko, berariazko laneratze-egitasmoa sustatuko du Eusko Jaurlaritzak, Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzaren bitartez eta Terrorismoaren Biktimei Laguntzeko Zuzendaritzarekin elkarlanean.

- Etxebizitza-aldaketa bideratzearen, babes ofizialeko etxebizitzak birsailtzeko egitasmoa zabalago egitea.

Hainbat biktimek pairatzen dituzten egoera zehatzen ondorioz, komenigarria izaten da egoitzaz aldatzeko gomendio egitea. Gizarteratzeko zailtasunez ari gara, baina baita sentiaratekoen edo afektibitate-erreferentzien galeraz edo presio, bortxakeria eta mehatxuzko egoerez ere.

Biktimaren etxebizitza babes ofizialekoa denean, Eusko Jaurlaritzak ahalik eta irtenbiderik egokiena bilatuko du hori besterendu edo birsailkatzeko, jabearen babes ofizialeko etxebizitzek berariaz dituzten mugez salbuetsiz.

- Izatezko bikoteei zuzendutako laguntza ekonomiak areagotzea.

Berdintasunezko printzipioa aplikatuz, eta izatezko bikoteen eskubideak ezkontideenak baino urriagoak izan ez daitezen, izatezko biktimen bikoteei legez inskribatutakoei ematen dizkien laguntza berberak ematen jarraituko du Eusko Jaurlaritzak.

- Biktimei, dagozkien zigor-prozesuen egoerari buruzko informazioa bideratzea.

Prozesuak jarraitzeko biktimek izaten duten gabeziei aurre egiteko, Eusko Jaurlaritzak, Terrorismoaren Biktimei Laguntzeko Zuzendaritzaren bitartez, zigor-prozesuei buruzko ahal beste informazio bideratuko die eskatzen duten biktimei, eskatzekotan, prozesuetan esku har dezaten edo epaiketara lagundurik joateko bidea irekiz eta erraztuz.

- Terrorismoaren biktimen aldeko diru-laguntzak areagotzea.

Biktimen elkarteek eta kolektiboek eurek, dituzten egitura eta programen bitartez, era guztietako laguntzak eskaintzen dizkiete biktimei, askotan, administrazioak emandakoekin batera, eta besteetan, horien osagarri gisa. Izan ere, badira berez terrorismoaren biktimek eurek osatzen ez dituzten elkarte eta erakundeek landu eta kudeatzen dituzten laguntza- eta asistentzia programak ere badira, elkarte horiek biktimekiko elkartasunaren alde baitihardute.

Elkarte hauei eta bere jarduera-programei diruz laguntzeko politikei eusteko, eta hala badagokio, areagotzeko konpromisoa hartzen du Eusko Jaurlaritzak, biktimen aldeko asistentzia eta laguntza osatzeko ezinbestekoak baitira.

Diru-laguntza hauek, Terrorismoaren Biktimei Laguntzeko Zuzendaritzaren deialdien bitartez kudeatzen dira.

- *Biktimentzat iraingarri izan daitezkeen pintadak eta kartelak kentzea*

Terrorismoa gure artean izan dugu urte luze hauetan. Gizartearengandik izan duen laguntza, gutxiengoarena izanik adierazgarri azaldu dena, tresna askoren bitartez kaleratu eta jendarteratu da, eta nagusienen artean, gure herri eta hirietako kaleetan jarri diren kartelak eta pintadak aipa daitezke. Izan ere, horiek atentatu terroristetan esku hartutako pertsona zehatzen, zein erakunde eragilearen, ETArekin, beraren omenezko eta aldeko mezuak idatzi dira. Zenbaitetan, terrorismoaren biktimen euren aurkako gorroto-adierazpenak eta mehatxuak ere azaldu dira horietan. Erabat onartezinak dira adierazpen publiko batzuk nahiz besteak. Norbanakoaren etikaren ikuspegitik, biktimen duintasuna erasotzen dutelako, beren saminarekin eragileak onartuz iraina berresten baitzaie. Eta moral publikoarenetik, biolentzia-balioak goratu eta giza eskubideekiko errespetua erabat urratzen delako.

Ondorioz, eta biktimen aurkako irainak eta erasoak galarazteko, eta errespetu, tolerantzia eta bizikidetzaren kontrako balioak gizartearen biderik ez emateko, terrorismoaren biktimen oroimena irain ditzaketan pintadak eta kartelak ez jartzeko etengabe zainduko du Eusko Jaurlaritzak, EUDELEkin elkarlanean. Era berean, biktimen duintasuna eraso dezaketan ekitaldi publikoak ere debekatuko ditu.

Terrorismoaren Biktimei Laguntzeko Zuzendaritzaren bitartez, heltzen zaizkion salaketa zehatz guztiei erantzun die, Eusko Jaurlaritzak, horretarako, irainaren kokalekuari dagokion Udalei helarazi eta, adostutakoaren arabera jarduteko eskatuko die.

Toki-administrazioek, horiek gauzatzeko dirua behar izatekotan, Eusko Jaurlaritzak diruz laguntzeko behar beste kontu-sail aurreikusiko ditu aurrekontuan.

- *Biktimentzat iraingarri izan daitezkeen kale eta plazen izenak berraztertzea*

Aurreko atalean emandako arrazoi berari eutsiz eta biktimen duintasuna babestu eta gure erakundearengandik terrorismoa praktikatzeko duen taldeko kideen gorripamena eta aitortza publikoak ekiditearren, EUDELEi biktimen duintasuna erasotzen eta iraintzen duten kale eta plazen izenak berrazter daitezkeen eskatzeko konpromisoa hartzen du Eusko Jaurlaritzak.

Terrorismoaren Biktimei Laguntzeko Zuzendaritzaren bitartez, honen inguruko salaketa guztiak erantzungo ditu, Eusko Jaurlaritzak, eta aurreko atalean adierazi legez jardungo da.

- *Komunikabideetan terrorismoari buruzko berriak emateko kode etiko bat bultzatzea*

Gizarte-hedabideen bitartez izaten dute gizarteko kide gehienek terrorismoaren eta biktimen inguruko arazoen berri. Beraz, edozein dela informazio-esparrua, hedabidea ezinbesteko elementua da herritarrengan heltzen diren edukiak egituratzeko orduan.

Zentzu honetan, terrorismoa eta, horrek sortzen dituen biktimak, hain arazo zail eta urrakor izanik, kontu handiz tratatzeak berealdiko garrantzia duela azpimarratu behar da, eta horrexegatik, premiazkoa eta beharrezkoa da, lehenbailehen, komunikabideetako profesionalak arazo hau jorratzean erabili eta errespetatu beharko dituzten arauak ezarriko dituen Kode Etiko bat egitea.

Indarkeria terrorista zuzenean pairatu duten pertsonen sentikortasunari min egin gabe eta, beren duintasuna laidoz gabe informatzean datza, hau da, terrorismoari edo beraiei buruzko informazio eman eta tratatzeko orduan, horiek ekiditean.

Hedabideetako profesionalen laguntza izango dugu ekintza hau garatzerakoan, euren nahiz biktimen pluraltasuna islatzen saiatu beharko direlarik. Mintegi eta topaketetan ekingo zaio honi, horietan, gaiaren inguruan eztabaidatu eta sakonduz, kodea osatuko duen oinarrizko arau etiko batzuk finka daitezen.

- *Bakerari begira egindako heziketa-programetan terrorismoaren biktimak agertu eta horien testigantzak jasoko direla bermatzea*

Bakerako eta Bizikidetzarako Hezkuntzaren arloan egitea aurreikusten diren edo egingo diren ekintzen inguruan, behar bezala sistematizatutako egitasmo pedagogiko bat sustatu eta garatuko du Eusko Jaurlaritzak, terrorismoaren biktimak eta euren testigantzak euskal hezkuntza-sarean esku har dezaten.

Oinarrizko betebeharra delakoan gaude, euren presentzia lehen mailako helburu ezberdinak betetzeko orduan, erabakigarria izango baita. Bakerako hezkuntza, indarkeriazko egoerekin alderatuz garatu behar da; izan ere, delako egoera horiek, biktimengan gertatzen baitira; eta biktimak izandako esperientzien bitartez, eta, aldi berean, pairatu dutenen testigantzen bidez adierazten baita ondoen.

Zuzentasunean, eta ahal bada, adiskidetzeari baketutako gizarteak sortzea izan behar da bakerako hezkuntzaren jomuga; baina, justizia hori zehazki noraino heltzen den doi-doi ulertzeko eta, adiskidetzeprosesuetan norabide egokiaz murgiltzeko oinarrizko baldintza bat, eragin handienak jasan dituztenekiko enpatiazko

elkarrizketak irekitzean datza. Aipatu arrazoi horrengatik, egon behar dute honetan biktimak, jasan duten guziarengatik, hain zuzen.

Terrorismoaren Biktimei Laguntzeko Zuzendaritza arduratuko da programa hau garatzeaz, horretarako, Hezkuntza Sailarekin eta Jaurlaritzaren baitan Bakerako Hezkuntzari buruzko gaiak jorratzeko Batzordearekin elkarlanean.

3. ardatza

OROIMEN HISTORIKOA BERRESKURATZEA ETA FRANKISMO- -GARAIKO BIKTIMEI ORDAINA EMATEA

1. AURREKARIAK, OINARRIAK ETA PRINTZIPIO POLITIKOAK

1.1. Aurrekari batzuk

- 11/1983 Legea, ekainaren 22koa, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioari zerbitzu egindako lanarien lanbide eta gozamen-eskubideei buruzkoa.
- 8/1985 Legea, urriaren 23koa, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioan zerbitzu egin zuten langileen lanbide eta gozamen-eskubideei buruzko ekainaren 22ko 11/1983 Legea osatzen duena.
- 8/1994 Legea, maiatzaren 27koa, Euskal Autonomia Erkidegoaz kanpoko euskal gizatalde eta etxeekiko harremanei buruzkoa. (3.2. eta 11. artikulua).
- 3/2002 Legea, martxoaren 27koa, ikastolak legez normalizatu aurretik ikastetxe horietan irakasten aritutakoak aintzat hartzeari eta ordaina emateari buruzkoa eta, delako Lege hori garatzen duen maiatzaren 6ko 99/2003 Dekretua.
- 280/2002 Dekretua, azaroaren 19koa, Amnistiari buruzko legean jasotako kasuen ondorioz askatasun-gabetzea jasan zuten pertsonentzako konpentsazioari buruzkoa
- Gerra Zibilean desagertutako pertsonen hilobiak ikertu eta aurkitzeko Sailen arteko Batzordea sortu da (2002ko abenduaren 10eko Jaurlaritzaren Kontseilua).
- Gerra Zibilaren 70. urteurrena dela-eta, dagokienei zor zaiena emateko eta horiek oroitzeko ekimenak garatzeko Jaurlaritzaren Kontseiluaren 2006ko urtarrilaren 24ko Erabakia.
- 22/2006 Dekretua, otsailaren 14koa, askatasun-gabetzea jasandako pertsonen, Langile Soldaduen Diziiplina Batailoietan egondakoei barne, konpentsazio ekonomikoak emateko ebazpenak ezartzen dituen, Amnistiari buruzko Legean jasotako kasuen ondorioz askatasun-gabetzea jasan zuten pertsonentzako konpentsazioari buruzko azaroaren 19ko 280/2002 Dekretuan araututako baldintza eta betebeharrak izan ditzaten, arau honetan aurreikusitako prozedura-kalteak salbu.

1.2. Oinarriak

- *Frankismo-garaiko biktimak, trantsizio demokratikoan ordaindu ez zen zorra*

Errepublikaren aurkako altxamendu militarrek ekarri zuen Espainiako gerra zibilaren ondoren (1936-1939), diktadura ikaragarria ezarri zen Espainiar Estatuan.

Horretan zehar, herritar ugarik, giza eskubideen eta oinarrizko eskubideen aurka-ko gehiegikeria eta urratze larriak pairatu zituzten.

Era guztietako metodoak erabili zituen Francoren diktadurak, nazioarteko tes-tuingurura egokituz egiten bazuen ere, izua eta errepresioa ezartzeko helburuare-kin, eta gerra zibilean garaitutakoen erresistentzia eta duintasuna zapaldu nahian.

Diktadurak gogortasun osoz sistematikoki erabilitako ekintzen artean honako hauek aipa ditzakegu: gizakiak desagerraraztea, tortura, lan, ideologia eta hiz-kuntza arloko diskriminazioa, errepresio politikoa eta sexu, arraza zein erlijioz-ko arrazoiengatiko jazarpena, eta ez bakarrik kolpe militarrean galtzaile izan zi-renen aurka, baita beren senitarteko eta lagunen aurka ere. Nahikoa zen «gorri» edo «separatista» baten emaztea, seme, alaba, ahaide edo laguna izatea, diktadu-raren errepresioa jasateko.

Estatu espainiarrak, izan ziren bezala aitortu eta onartu ez dituen krimenak eta giza eskubideen urratze larriak izan ziren.

Frankismo-garaiko biktimak erabat ahaztu ditu Espainiako trantsizio demokrati-koak. Diktadurako berrogei urte luzeetan pairatutako oinazeak ez du oraindik me-rezi duen aitormena jaso.

Oraindik ere, militarrek altxatu zireneko 70. urtera, ez dugu egiazki ezagutzen gertatutakoa. Ehun milaka errepresaliatu eta erbesteratu, milaka gorpu soro eta bide-bazterretan, fusilatu ondoren izenik gabeko hilobietan ehortziak; hamaika kartzelaratu eta torturatu, eta diziplina-batailoietan bortxazko lanetan aritzera be-hartuak...; ezkutuan gorde da egia trantsizioaren ondoren ere. Ez dute jasandako errepresioaren berri eman ahal diguten dokumentuetara heltzen utzi eta, zailtasu-nak jarri dituzte, hainbatetan, besterik gabe, testigantza horiek jasotzen zituzten artxiboak suntsitu eta desagerrarazi egin dituztelarik.

Frankismo-garaiko diktaduran izan zen errepresioa ezkutatuz garatu zen «ereduzko trantsizioa» izena daraman hori. «Deserosoa» suertatzen zen frankismo-garaiko biktimen oroimena, eta berriz ere isilik eta ahaztuta jarraitu zuten. Honela, gerra zi-bileko zauriak baztertu egiten zirela pentsatu zuen gizarteak. Baina, egia ezkutatu-ta, gizarte baten historia zatia «ostu» eta, hori gabe garatutakoa sortu da. Herri-agin-te guztioi eta gizarte osoari dagokigun betekizun morala da, Frankismo-garaiko biktimekin eta euren borrokaren eta jazarpenaren eragile izan ziren ideiekin, tran-sizio demokratikoak erakutsi ez zuen begirunearen zorra ordaintzeko betebeharra, urte luzeetan bidegabe ahaztuta egon ondoren merezi dutena jaso dezaten eta egun-go gizartearen artean pairatutakoa ezagutarazi eta iraunarazteko. Honela, gure ira-ganeko onena eta zintzoena geureganatu eta gure historiaren orrialde izugarri bati duintasunez aurre egin ahal izango diogu, eta aldi berean, egiazko bizikidetzaren oi-narria ezarriz. Teruelgo hilobi bateko epitafioak dioen legez: «Betiko, ahazten gai-

tuzuenan hilko gara», eta, are okerrago, euren borrokaren eta jazarpenaren eragile izan ziren ideiak, askatasuna, demokrazia, elkartasuna, justizia sozial eta aurrerabidea ahaztekotan, horien izenak Historiatik ezabatuko ditugulako.

- *Estatuak zuzendu behar du bidegabekeria historiko hau*

Zor bat dauka oraindik ere espainiar demokraziak frankismo-garaiko biktimekin eta euren borrokaren eta, jazarpenaren eragile izan ziren ideiekin. Espainiar Estatuak ez du inoiz onartu diktadura-garaiko ekintzei dagozkien ordainak emateko duen erantzukizuna. «Estatuen ondorengotzatik» ondorioztatzen den erantzukizun juridikoaz ari gara, ez ideologikoaz. Bien bitartean, Alemania, Italia edo Frantzia bezalako herrialdeetan, estatuak bereganatu zuen, antzeko diktadura-garaietan gertatukoaren erantzukizuna eta, luze eman zioten eta, ahaleginak eta baliabideak eskaini egia ezagutzeari, oroimen historikoa berreskuratzeari eta biktimei zegokien ordaina emateari. Espainiar Estatuan egindakoa, beraz, osatu beharrean dago, orain artekoa ez baita behar bestekoa eta behar bezalakoa izan. Amnistia Internazionalak 2005eko ekainaren 30eko txostenean baieztatzen duen bezala: «Estatuak ez du frankismo-garaiko biktimek, banaka edo taldeka, dagokiena berreskuratzeko duten eskubidea onartzearen aldeko egiazko politika bat egin».

Aitormen moralaren inguruko iraultzak iraultza, frankismo-garaiko biktima gutxi batzuei baino ez zitzaion zegokion ordaina eman Estatuko Aurrekontu Orokorren 4/1990 Legea zehatz-mehatz aplikatzerakoan. Pinochet estraditatzeko eskatu eta Scilingo epaitu zuen Espainiar Estatua, ez da bere biktimei egia, justizia eta ordaina eskaintzeko gai izan. Egun, oraindik, pasibotasun horrek bere horretan jarraitzen du Espainiako Exekutiboan, duela urtebete Espainiako Gobernuak agindu, eta abagune politikoko arrazoiak argudiatu ondoren, «Oroimen Historikoari» buruzko Legea, artean, noiz onartuko zain baitago.

- *Frankismo-garaiko biktimekiko zor historiakoa «ordaintzeko» Eusko Jaurlaritzak abiarazitako ekimenak*

Eusko Jaurlaritzaren ustetan, Estuari dagokio frankismo-garaiko biktimei zor zaienaren ordaina, erabat eta eraginkortasunez, ematea. Gainera, «Oroimen Historikoari buruzko Lege» baten esparruan barne hartu beharko da, horren bitartez, besteak beste, bakoitzari dagokion ordain ekonomikoa eman, konfiskatutako ondasunak itzuli, frankismo-garaiko auziak baliogabetu, artxibategi historiko eta militarrek ireki eta frankismo-garaiko diktadurako ikurrak eraldatzeko. Beraz, Espainiar Estatuak bete behar duen eginkizun historikoa da.

Nolanahi ere, Eusko Jaurlaritza, egoera honen aurrean, ez da ezer egin gabe gelditu eta, dagozkion eskumenen eta aurrekontu-mugen arabera, bidegabekeria historiko hori, behinik behin zati batez, konpontzea ahalbidetu duten hainbat neurri garatu ditu.

Izan ere, 1983. eta 1985. urteetan, gerra zibilaren garaian euskal administrazioari zerbitzu egindako langileen eskubideak onartu ziren, legeen bitartez. Orainsua-go, 2002. urtean, frankismo-garaian ikastoletan irakasten aritutakoak aintzat hartzeari eta ordaina emateari buruzko arauak ezarri ziren. Duela gutxi, berriz, bi dekretu onartu dira, Espainiar Estatuaren Aurrekontuei buruzko 4/1990 Lege murriztaileak, Euskadin kanpoan utzi zituen frankismo-garaiko biktimei konpentsatzeko laguntzei buruzkoak. Horrez gainera, programa berezia burutu da desgertutako pertsonak identifikatzeko eta fusilatuta hilobi komunetan ehortzitako gorpu guztiak berreskuratzeko. Eta berrikiago oraindik, 2006. urtearen hasieran, Gerra Zibilaren 70. urteurrena dela-eta, oroimen historikoa berreskuratzeko beraiazko ekimen-programa bat, eta Langileen Diziiplina Batailoietan, askatasun-gabetzea pairatu zutenei konpentsatzeko laguntzak onartu dira.

Laguntza hauek bideratzeko, zailtasun handiak izan ditu Eusko Jaurlaritzak, eta horrela onartzen du. Izan ere, Estatuaren artxibategien egoerak, Eusko Jaurlaritzak etxeko adituak bidali bazituen ere, eta administrazio- eta finantza-egoerak berak ez diote bidea erraztu, baina azaldu ahala konponduz eta, kreditua areagotuz eta arau berri bat sortuz, bete du. Bizitzan zehar askatasun-gabetzea eta errepresioa pairatuta ere, askatasunaren eta demokraziaren alde egin zuten gizon-emakumei, egindako ahaleginaren ordaina eman nahi zien, eta die, Eusko Jaurlaritzak. Laurogeiko urteetan osatu zenetik, diktadurako biktimei alde egin duena ez dela nahikoa, jakin badaki Eusko Jaurlaritzak, eta horrengatik guztia-rengatik, barkamena eskatu nahi die biktimei, bidegabekeria hori jasan eta ahan-tziak izan direnei.

Garatutako ekimenak, ibili behar dugun bidearen zati txiki bat baino ez direla onartzen dugu eta, Bake eta Bizikidetzarako Plan honen bitartez, frankismo-garaiko biktimei oroimen historikoa berreskuratzeari eutsi, eta frankismo-garaiko errepresioak eta diktadurak eragindako kalteari dagokion ordain moral eta ekonomikoa ematen lagundu nahi dugu.

1.3. Jarduteko printzipio politikoak

- *Frankismo-garaiko biktimei zor zaiena aitortu eta begirunea bermatze aldera, egia jakiteko eskubidearen aldeko konpromisoa azaltzen dugu.*
- *Oroimen historikoa berreskuratzeko borondatea berretsi eta frankismo-garaiko biktimek ordain moral eta ekonomikoa jasotzeko duten eskubidea aldarrikatzen dugu.*
- *Gerra zibileko zauriei duintasunez aurre egiteko eta orduko izugarrikeriak gogorarazteko beharra azaltzen dugu, ezein ideia edo proiektu politiko totalitarioren izenean inoiz errepika ez daitezen.*

2. KONPROMISOAK ETA EKIMENAK

2.1. Oroimen historikoa. Aitormena eta egia

- *Frankismoaren matxinadaren 70. urteurrena dela-eta, egitasmo-omenaldi bat garatzea*

Gerra zibilak leherrarazi zuen Errepublikaren legaltasunaren aurkako estatu-kolpe militarretik, hirurogeita hamar urte betetzen dira 2006. urte honetan. Ehun milaka hildako, desagertu eta erbesteratu eragin zituen gertaera dramatiko honen 70. urteurrena dela-eta, frankismogaraiko biktimak gogoratzeko eta oroitzeko programa berezia sustatuko du Eusko Jaurlaritzak.

Horretarako, eta 2006ko urtarrilaren 24an Jaurlaritzaren Kontseiluak onartutakoa betez, besteak beste, honako ekimen hauek garatuko dira:

— Sailen arteko Batzorde bat eratzea, 70. urteurrenaren ekitaldiak koordinatu eta sustatze aldera.

Honako sail hauek osatuko dute batzorde hori: Lehendakaritza, Etxebizitza eta Gizarte Gaiak, Justizia, Lana eta Gizarte Segurantza, Kultura eta Ogasun eta Herri Administrazioa.

— Frankismo-garaiko biktimen omenezko eskultura bat jartzea.

Bilbon jarriko da Nestor Batteredxea eskultoreak, frankismo garaiko errepre-sioa eta diktadura pairatu zuten pertsona guztien oroimenez egindako eskultura.

— Gernikako Bonbardaketaren Oroimenez.

2007ko apirilaren 26an, 70 urte beteko dira Gernika bonbardatu zutenetik. Hori dela-eta, hainbat ekitaldi garatuko dira oroitzeko. Hasteko, Cónдор legioaren bonbardaketaren berri mundu osoan zehar eman zuen The Times egunkariko korrespontsala zen G. Steer-en omenezko plaka-eskultura estalgabetuko dela.

— Gudariaren omenezko monumentua.

Artxanda mendian jarriko da, Euskadiko demokraziaren eta askatasunaren alde eusko gudarostean borrokatu zuten gudarien omenezko eskultura-monumentu hau.

— Trutziosko adierazpena.

Agirre Lehendakariak, Euskaditik kanpo milaka aberkiderekin erbesteratu baino lehen, Bizkaiko herri honetan «Trutziosko Adierazpena» izenburupean idatzi zuen agiria argitaratu eta hedatuko da.

— Intxortako monolitoa.

Elgetan, hilabeteak iraun zituen batailaren omenez jarriko da. «Intxortatarrak» izenarekin ezagutzen den eremua da, 1936ko urriaren hasiera aldera, Francoren aldeko tropak geldiaraztea lortu zuen euskal armadarena, alegia. Horri esker, Lehendakariak Gernikan karguaren zina egin eta 1937ko uztailean, Euskadin borrokaldia amaitu zen arte, Eusko Jaurlaritzaren lanak garatu ahal izan zituen.

— Lehenengo Eusko Jaurlaritza.

Lehenengo Eusko Jaurlaritza sortu zeneko 70. urteurrena dela eta (1936ko urriaren 7a), Gernikan omenaldi bat ospatuko da, bertan, ideologia politiko guztiak egotea espero delarik.

— Fusilatuak eta desagertuak.

Jaurlaritzak, Hernaniko Udalarekin eta Gipuzkoako Foru Aldundiarekin elkarlanean, omenaldi bat ospatuko dute Hernaniko hilerrian, fusilatu eta desagertutako eta, hilobi komunetan ehortzitako pertsona guztien oroimenez.

- *Gerra- eta frankismo-garaiko errepresioa krudeltasun bereziz pairatu zuten taldeei begirunea erakusteko ekitaldiak sustatzea*

Gerraren ankerkeria eta frankismo-garaiko errepresioa krudeltasun bereziaz pairatu zuten hainbat talderen eta zenbat jazoeraren oroimena berreskuratzeari eta horiekiko begiruneari arreta berezia eskainiko diote Eusko Jaurlaritzak, Udalek eta Elkarte pribatuak, oinazea ahantz ez dadin eta geroko belaunaldientzat erreferente izateko. Ondoren leku eta giza taldeak izango dira kontuan, hain zuzen:

— Gerrako haurrak.

Gerra zibilaren ondorioz, Euskaditik atzerriratu behar izan zituzten 30.000 neskatila-mutikoren oroimena gogoratzean datza. Hori dela-eta, hainbat ekimen garatuko dira, besteak beste: argitalpenak kaleratzea, ekitaldi sinbolikoak eta artxiboak eta agiri grafikoak berreskuratzea.

— Kontzentrazio Esparruak.

Giltzaperatuta egon ziren pertsona guztien oroimena berreskuratzea. Miranda de Ebroko kontzentrazio-esparrua eta Deustuan kokatu zena hartuko dira erreferentzia sinbolikotzat.

— Gurseko Internalekuak.

Milaka euskal emakume eta gizon giltzaperatu zituzten Zuberoatik gertu da goen Biarnon kokatutako Gurseko esparruan, 1939. urtetik aurrera. Luis Bil-

bao Líbano euskal medikuak zuzentzen zituen kontzentrazio-esparruko osasun-zerbitzuak. Euskal herritarren hilerria berreskuratu eta Gursekiko anaitzekitaldi instituzionala antolatuko da.

— Errepresaliatutako emakumeak.

Emakunderekin batera, errepresioa pairatu zuten emakume guztien omenezko ekitaldia egingo da. Saturrarango kartzelaren kokalekua hartuko da erreferentzia sinbolikotzat, horretan milaka emakume errepublikar kartzelaratu baitzituzten 1937tik, 1944an itxi zen arte.

— Homosexualak.

Langraiz Okako kontzentrazio-esparrura Estatu osoko txoko denetatik ekarri zituzten homosexualak oroitu dira era berezian, horiek guztiak pabiloi jakin batean sartu eta era guztietako irainak jasan behar izan baitzituzten.

— Bonbardatutako hiri eta herriak.

Bonbardatuak izanagatik, Gernikako tragedia buruan, askotan ahaztuak izan diren hainbat hiri eta herritako biktimak oroitzea izango du xede. Orogen artean, Bilbo eta Otxandio pairatu zituzten gogorrenetarikoak, eta horietan, oroi-tu eta omentzeko ekitaldiak garatuko dira.

— Protagonistak.

Askatasunaren alde egiteagatik nabarmendu ziren ideia politiko ezberdinetako gizon-emakumeak eta «ahaztutako izenak» gogora ekartzeko ekimenak antolatuko dira.

- *Ikus-entzunezko artxibategia eta gerra zibileko Euskal Ondare Historikoa berreskuratzea*

Euskadiko armadak 1936. urtetik 1937.era eraiki zituen azpiegitura zibil eta militarren aztarnak katalogatzea eta, horien balioa azpimarratzea izango da proiektuaren jomuga.

Bilbo inguruan egin zen eta «burdinazko gerrikoa» izenez ezagutzen den babes-eratzunari zein, Gipuzkoa, Araba eta Bizkaiko beste hainbat leku enblematikori arreta berezia eskainiz, euskal kultur ondarea osatuko duen inbentarioa egingo da.

Orobat, Euskadin eta hainbat euskarritan jasoak, gerra zibilari buruz dagoen dokumentazioa bilatu eta katalogatzeko proiektu bat ere planteatu da, hau da, ikus-entzunezkoak, hemeroteka, fotogramak, argitalpenak, artxiboak, testigantzak, irriati-grabazioak, etab. Horiekin, Euskadin eman zen gerra zibilari buruzko bil-

duma osatu, eta Euskadin izango den artxibo historikoan gordeko du Eusko Jaurlaritzak.

- *Frankismo-garaiko errepresioaren eta erbestealdiaren inguruko erakusketa ibiltaria. Proiektua: «Oroimen bizia»*

Gerra zibilaren eta frankismo-garaiko biktimen oroimena bizirik iraunarazte aldera, dauden irudi, artxibo, argazki eta ikusentzunezkoekin erakusketa bat antolatu eta Euskadiko hiri nagusietan ikusgai jartzea planteatuko da. Oraindik zehaztu ez den lekuren batean gordeko da, bertako erakusketa iraunkorra izan dadin.

2.2. Justizia eta ordaina ematea

- *Frankismo-garaiko espetxeratuen eta errepresioaren biktimen egiaztagiriak eta artxiboak berreskuratzea*

Eusko Jaurlaritzak Aranzadi Zientzia Elkartearekin batera abiarazitako proiektuari jarraitutasuna ematea eta osatzea da helburua. Kartzela, kontzentrazio-esparru eta langileen batailoietatik igaro ziren milaka euskaldunen espedienteak bilatzea du helburu, horiek, Eusko Jaurlaritzaren 280/2002 dekretuari atxiki ahal izateko, egiaztatzerik behar baitituzte.

Archivo Intermedio de la Región Militar Noroeste (Ferrol, Coruña) delakoan bilatu da dokumentazio gehiena, justizia militarreko artxibategi horretan gordetzen baitira gerra zibilaren ondoren auziperatuak izan ziren hamar milaka euskal herritarren aurkako kausak. Orain arte, 19.000 kausari buruzko datu guztiak eskuratu dira.

- *Diziplina-batailoietan kondenatuta egon behar izan zutenei kalte-ordain ekonomikoa emateko programa areagotzea*

Amnistiari buruzko Legean jasotako kasuen ondorioz askatasungabetzea jasan zuten pertsonentzako konpentsazioari buruzko azaroaren 19ko 280/2002 Dekretua betez, Estatuko Gobernuaren laguntzarik jaso ez zuten 3.175 lagunek, 7.200 eta 9.600 euro bitarteko zenbatekoak jaso dituzte. Egunera arte, orotara, ia 26 milioi euro erabili dira konpentsazioetan.

Eusko Jaurlaritzak, 280/2002 Dekretua argitaratzearekin, hainbat ekimen abiarazi zituen, Estatuko erakundeen utzikeriaren ondorioz, frankismo-garaiko biktimei ordain ekonomikoa bideratu nahian.

Izan ere, orain arte ezer egin gabe zegoen Euskadin, erakunde-mailan, errepublikaren legaltasunaren alde borrokatu eta Francoren diktadura pairatu zuten gizon-emakumeen oinazea aitortzeko. Prozesu honek zailtasun handiak gainditu behar

izan ditu, eta bereziki, Eusko Jaurlaritzak konpontzen saiatu den egiaztagiriena. Horretarako, historialari-taldeak igorri ditu agirien bila, Guadalajara, Ferrol eta Madrilgo artxibategietara, EAEko udal-artxibategietara, eta abarretara.

Oraingo legegintzaldian, gainera, langile soldaduen diziplinabatailoietan askatasunik gabe egon ziren pertsonen zuzendutako laguntzak areagotzeko konpromisoa hartu du Eusko Jaurlaritzak. Horretarako, Jaurlaritzaren Kontseiluak, otsailaren 14an, laguntzei buruzko Dekretua aldatu eta areagotu du, 2006. urtean Diziiplina Batailoietan askatasunez gabetuta egon ziren pertsonen konpentsatzeko 10 milioi euro gehiago bideratuz.

- *Frankismoaren biktimei zuzendutako laguntza-programen barruan zain dauden kasuak aztertzea*

Jaurlaritzak, askatasunik gabe egoteari buruz aurkezten diren ziurtagiri berrietan oinarrituta, eta dauden baliabide ekonomikoen arabera, orain arte laguntzei buruzko Dekretuetan ezarritakotik kanpo geratu diren kasuak berraztertuko ditu.

- *Politikaren eta legearen arloko ekimenak, Espainiar Estatuan eta Europar Bata-sunean Frankoren diktadura gaitzesteko eta frankismoaren biktimei begirunea erakusteko*

Espainiako Gobernuak Oroimen Historikoari buruzko Legea sustatu eta onar dezan, politikaren eta legegintzaren inguruko hainbat ekimen bultzatuko dituzte Jaurlaritzak eta euskal erakundeek, frankismo-garaiko biktimei dagokien begirunea aitortzeko eta konpentsazio ekonomikoa emateko prozesua bermatze aldera.

Orobat, eta Amnistia Internazionalaren «Espainia: isiltasunarekin eta bidegabekeriarekin amaitzea. Espainiako gerra zibileko eta erregimen frankistaren biktimei zor zaiena» izeneko txostenari jarraiki, frankismo-garaiko diktadura gaitzesteko ekimenak eramango dira europar eta nazioarteko Erakundeen aurrera, betiere, Gerrako krimenen eta gizateriaren aurkako krimenen preskripzio-gabetasunari buruzko NBEaren Konbentzioan oinarrituz.

4. ardatza

ASKATASUN NAHIZ ESKUBIDE ZIBIL ETA POLITIKOEN ALDE LAN EGITEA

1. AURREKARIAK, OINARRIAK ETA PRINTZIPIO POLITIKOAK

1.1. Aurrekariak

- «Pertsona guztien giza eskubideen eta askatasunen aldeko konpromiso etikoa» (*Gernika, 2000ko abenduaren 20a*).
- «Demokraziaren, askatasunaren eta euskal gizartearen pluraltasunarekiko errespetuaren aldeko adierazpen zibikoa» (*Eudel, 2002ko maiatzaren 3a*).
- Alderdi Politikoen Legeari buruzko Eusko Jaurlaritzaren jarrerak (*2002 eta 2003*).
- Errekurtsoa, Auzitegi Konstituzionalaren eta Giza Eskubideen Europako Auzitegiaren aurrean (*2002*).
- Hedabideak ixtearen aurka eta adierazpen-askatasunaren alde Eusko Jaurlaritzak eta Eusko Legebiltzarrak azaldutako jarrerak (*2003, 2004 eta 2005*).

1.2. Oinarriak

- Gizakiaren duintasunarekiko eta giza eskubideekiko errespetua da, libre, demokratiko, zuzen eta solidario izan nahi duen bizikidetzaren oinarri behinena. Giza eskubideak ez dira boterearen oztopo hutsak, oso bestelakoa eta zabalagoa da duten eginkizuna, bizikidetzaren funtsezko balioak baitira. Gero eta gizarte zuzen eta solidarioago baten oinarri izango diren jokabide-kodearen eta gizartearen antolamendu printzipioen iturri dira giza eskubideak.

Horregatik, banakoaren zein taldearen giza eskubideen aldeko lana eta sustapena, herri-aginteei ez ezik, gizarte osoari eta hori osatzen duten erakunde guztiei ere badagozkie. Izan ere, besteen eskubideekiko errespetuan eta horiek betetzean baitatza, pertsonari dagozkion eskubideei buruzko ikuspegi individualistaren eta Giza Eskubideek ezartzen duten ikuskera sozial eta solidarioaren arteko ezberdintasuna. Azken honek, hain zuzen ere, gizarte ireki eta anitzen berezko sistema eta kultur baliotzat hartzen ditu, non, errealitate hori osatzen duten eskubideen eta kide guztien arteko mendekotasuna nortasun-adierazle baten.

Hala ere, giza eskubideen ikuspegi dinamiko eta solidario honek, lehen mailako giza eskubideak ditu oinarri, gizakiaren askatasunen eremua bermatzera zuzentzea helburu berezi zuen ikuspegiaren funtsezko jarraibidea, estatuaren boterearen legez kontrako esku-hartzerik gabeko eremu librea zena. Herri-boterearen zi-

legizko indarkeriaren monopolioak zikliko bihurtzeko arriskua duela egiaztatzean, eskubide zibil eta politikotzat ezagutzen direnak, gure kultura juridikoan, bilakaera —eta erantzun zibilizatu— gisa txertatzen dira, hiritarraren eskubide behinenak gehiegikeriaz eta min egiteko erabiliak izan ez daitezten.

Espiritu horrek bultzatu zuen 1950eko Giza Eskubideak eta Oinarrizko Askatasunak Babesteko Europako Hitzarmena onartzera, 1948ko Nazio Batuen Giza Eskubideei buruzko Gutunean jasotako printzipioez baliatzerakoan, funtsezko askatasunak munduko justiziaren eta bakearen oinarri direla egiaztatzean. Oinarri horiek, batetik, 1966ko Eskubide zibil eta politikoen Hitzarmenean, eta bestetik, urte bereko Eskubide ekonomiko, sozial eta kulturalen Hitzarmenean barne hartu ziren, horrela, gure artean eta munduan, giza eskubideen kultura juridikoki gauzatzeko abiapuntua izango zenaren —Konstituzioa bera— erreferentzia gune sendoa osatzeko bideari jarraipena eta zehaztapena ematen zitzaizolarik.

Espainiako 1978ko Konstituzioak ere bere egin zituen pertsonaren eskubide horiek eta, giza duintasuna babesteko, ezinbestez errespetatu behar direla azpimarratu zuen. Izan ere, gizon-emakume bakoitzari datxekion duintasun hau baita, botere publikoa arautzeko —eta horren garapenaren menpekoa— giltzarria eta bere zilegitasunaren oinarria. Beraz, Konstituzioak eskubide horien funtsa errespetatzera ez ezik, horiek eraginkortasunez betearaztea eskatuko duten arau guttiak ateratzera ere derrigortzen du. Eta horiek horrela, eraginkortasunez gauzatu ko dela bermatuko dituzten eskubideak eta arauak onartu beharko dira ezinbestez, hots, ukaezinezko programa arautzaile eta menpekoa, hiritarrek pertsona gisa, indibidualki zein gizarte eta taldepolitikaren ikuspegitik, askatasunez garatzerik izan dezaten.

Baina giza eskubideak, onartuta ere, ez dira erreferentzia estatikoak, amaigabeko errespetu eta bermearen ereduak maila gorenean jartzeko helburuarekin, gizarte-ek azken batez bereganatu nahi dituzten puntuak baizik. Giza eskubideak edukiz jantzi nahian, eta oinarrizko eskubideak babestuko dituen jarraibidea ahalik eta eraginkorren moldatzeko asmotan, erregresio eta progresio faseak ezartzen dituzte historiaren gorabeherak. Eta gaur egun, eta ez bakarrik gure artean —hala bada ere—, berebiziko jazoera terroristarik ankerrenek —irailak 11 (New York), martxoak 11 (Madril)...— markatzen duten erregresio-fasean bizi gara, behin eta berri errepikatu den eztabaidari, askatasunaren eta segurtasunaren artekoari, bide emanaz. Dirudienez, demokraziaren mehatxuei litekeen eraginkortasun handiagoz aurre egitearen alde, eztabaida horrek giza eskubide horien eraginkortasuna alde batera uztera eta askatasun-eremuak murriztera bultzatzen ditu segurtasun-politikak.

Amnistia Internazionalako edo Human Rights Watch bezalako erakundeen urteko txostenek behi eta berriz salatzen duten bezala, gerta daiteke segurtasunaren

aitzakia erabiltzea, giza eskubideak urratzeko edo, behinik behin, orain arte itxuraz finkatuta zeuden askatasuneremuak nabarmen murriztuko dituzten legezko marko eta eztabaida ezartzeko. Kofi Annanek, NBEko idazkari nagusiak, nahigabez onartu zuen Demokrazia, Terrorismo eta Segurtasunari buruzko Madrilgo Biltzarraren (2005eko martxoa) amaiera-ekitaldian, giza eskubideei buruzko nazioarteko adituak bat datozela, egun Estatuetan terrorismoaren aurka ezartzen diren politika berri askok giza eskubideak eta oinarrizko askatasunak urratzen ditzutela egiaztatzean.

- Nazioartean segurtasun-politikei buruz eta oinarrizko eskubideak eta bermeak murrizteko dagoen joerak badu islarik Euskadin, ETAren fenomeno terroristak, duela hamarkada batzuk, terrorismoaren aurkako oso araudi berezia sorrarazi baitu.

Jarduera terrorista guztiek erantzun bat izan behar dute, ezbairik gabe. Nolanahi ere, erantzun honek ezin ditu Zuzenbidezko Estatu baten bermeak eta oinarrizko askatasunak arriskutan jarri. Izan ere, demokraziaren handitasun moralak, mugak dituen askatasunaren babespean egituratzean datza, muga horiez gaindi, erakundeen indarkeriari bide emateko eta, ideia behinenean izenean oinarrizko eskubideak urratzeko arriskua baita. Normaltasunezko parametroak erabilita erantzun behar dute estatu demokratikoek, eta beti, berdintasunaren printzipioak betez eta profil guztietako pertsonen eskubideak errespetatuz.

Araudi berezi horren atzean, hiritarra areriotzat islatzen duen irudia dago, eta horren bitartez, giza eskubideak suspertu eta bateratzen dituzten oinarri etiko eta balioak, pixkanaka desegindako kontzientziak sortuz. Zuzenbide penal, prozesal eta penal eta espetxe-zuzenbide bereziak, botere publikoentzat ezinbestekoak izan beharko luketen askatasun-eremuak aldizka murrizteko jarraibidea ezartzen dute. Eta hori guztia, gainera, denon askatasunaren alde, eta ez zilegizkoaren alde bakarrik, baita modu eraginkorrenetan ere, bizikidetzak baketsu iraunkorra bermatuko duen eraikuntza sozial, juridiko eta politiko zuzenago bat bultzatzen duelako. Indarkeria bidegabeak ahalik eta gehien murriztea eta eskubideak areagotzea lortu duten justiziazko bake eta bizikidetzak: «eskubide guztiak pertsona guztientzat». Lehendakariak legegintzaldi honetako inbestidura-saioan adierazi legez, bide honi jarraitzen dio euskal gizartearen gehiengoak.

1.3. Jarduteko printzipio politikoak

- *Pertsona guztien giza eskubideen nahiz askatasun zibil eta politikoaren alde lan egiteko konpromisoa azaltzen dugu*

Multzo bat osatzen dute giza eskubideek elkarrekin, eta horrek, koherentzian eta zatiezintasunean oinarritutako errespetua behar du, hau da, batzuei edo besteei lehentasunik eman gabe jardutea.

- *Eskubide zibil edo politikoak urra ditzaketen tresna eta metodo mota guzti-guztien aurkako gaitzespena azaltzen dugu*

Oinarrizko eskubideen urratze larrien aurkako gaitzespenak, ezin dira eragin duenaren arabera moteldu edo egokitu. Urratze guzti-guztiak gaitzetsi behar dira, eragileak herri-aginteak nahiz —antolatuak zein antolatu gabe— gizarte zibileko taldeak izanda ere.

2. KONPROMISOAK ETA EKIMENAK

2.1. Eskubide zibil eta politikoaren sustapena eta defentsa

- *Giza Eskubideen aldeko sentikortze-kanpainak garatzea, eta, bereziki, Eskubide Zibil eta Politikoaren Nazioarteko Hitzarmenean jasotako eskubideen ingurukoak*

— Tolerantziari buruzko tresna pedagogikoa diseinatu eta abiaraztea.

Adierazpen-askatasunaren ingurukoei buruzko berriazko gida espezifikoa diseinatu eta erabili nahi da, horren gainean, bakerako hezkuntzaren arloan eztabaidagai —askatasun horren edukiak eta mugak— izan dadin, betiere, eskoladineko haurrei egokituta. Horrekin guztiarekin, adierazpen, iritzi, pentsamendu, erlijio eta ideologia askatasunaren beharraz gain, pertsonen ohorea zalantzatan jartzen denean edo «gorrotoaren hizkuntza» (*hate speech*) deritzonera jotzean, askatasun horien mugen nondik norakoez sentsibilizatu nahi dira gazteak.

Proiektuan, Hezkuntza Berriztatze (Hezkuntza Saila) eta Gazteria (Kultura Saila) Zuzendaritzek esku hartuko dute.

— Askatasun zibil eta politikoek Euskadin duten egoerari buruzko graduatu ondoko ikasketak sustatzea.

Askatasun zibilak, gaur egun, eta nazioarteko ikuspegiaren inguruan sakonduz, zein norabideri jarriki bilakatzen ari diren aztertuko dituzten graduatu ondoko heziketa-zikloak sortu eta/edo finkatuko dira. Gaiaren inguruko hausnarketa kritikoa sustatzea eta eztabaida- eta informazio-gune iraunkorrak sortzea du xede.

- *Giza Eskubideei buruzko Nazioarteko Adierazpenak Euskadin eta Estatuan nola gauzatzen diren aztertze mintegia antolatzea.*

Mintegi honen bitartez bi helburu lortu nahi dira: lehenik, Nazio Batuek 1966. urtean onartu zituzten Nazioarteko Itunak, giza eskubideen arloan egiazko konstituzionaltasun-multzo gisa aztertzea eta; ondoren, azterketa hori euskal gizartearen

zabaltzea. Espainiar Estatuak sinatu eta berretsi dituen eskubide zibil, politiko, ekonomiko, sozial eta kulturei buruzko itun horiek, 1948ko Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsala osatzen dute. Itunak ez ezik, adituek nazioarteko Hitzarmentik garrantzitsuenak ere aztertuko dituzte topa-gune honetan. Ondorioztatutako edukia hiritarren artean hedatzea du xede, itun horiek jasotzen dituzten nazioarteko eginkizunak betearazteko mekanismoei arreta berezia eskainiko zaielarik.

- *Askatasun zibilen esparruan eta balio demokratikoen alde lan egiten duten erakundeek ekimenak sustatzea*

Bake-kultura eta giza eskubideak sustatzera zuzendutako politikak ezartzerakoan, eskubide zibil eta politikoak gauzatzearekin lotutako arloen inguruko ekintzak garatzea xede izango duten programei eta erakundeek aldeko laguntza lehenestea ahalbidetuko duen lehentasunezko lerroa finkatuko da. Zentzu berean, halaber, balio demokratikoak nabarmendu, finkatu eta sustraitzean oinarritutako programak eta erakundeak ere hobetsiko dira.

- *Pertsona guztien eskubide zibil eta politikoak urratzearen aurkako ekimen parlamentario eta instituzionalak proposatzea*

— Terrorismoaren aurkako zigor-araudiaren betearazpenari buruzko urteko Txostena egitea.

Terrorismoaren aurkako zigor-araudia nola aplikatzen den aztertuko duen informazio-tresna independentea landuko da. Azterlan horretan honako gai hauei eskainiko zaie arreta berezia: gaiaren inguruan eman diren azken erreformak (1996-2005), jurisprudentziaren joeran emandako aldaketa nagusiak, auzitegiko praktika frogagarriak, etab. Arloan gaituak izanik, independentzia jardungo direla egiaztatuko duten pertsonak landuko dute. Gaiaren inguruan garatzen ari diren ekintzak hiritarren artean zabaltzea du xede, bestela, eta erakusten duten zailtasun juridikoa dela-eta, ez baitira jendarteratzen. Horretarako, txosten bat taxutuko da urtero.

— Estatu eta Europa mailan garatzen den terrorismoaren aurkako araudiari buruzko nazioarteko hausnarketa-gune bat antolatzea.

Gure ingurune juridikoa, terrorismoaren arloko zigor-araugintzarekin erkatuz, eta bereziki Europakoarekin alderatuz, nolakoa den aztertu nahi da. Oinarritzeko eskubideen babesaren inguruan Europan eta nazioartean dauden esperientziak eta ereduak, Espainiar Estatuaren jarduerekin alderatzea da helburua. Europar adituek zuzenduko duten hausnarketa-jardunaldi bat antolatuko da, azkenean, zuzenbide konparatuaren eta nazioarteko jurisprudentziaren arloari buruzko egoera laburbilduko duen txosten bat egiteko. Ondoren, gizartearen artean zabaltzeko ahal izango da.

- Legebiltzarrean, Euskadin askatasun zibil eta politikoak nola gauzatzen diren aztertzeko eztabaidak proposatzea.

Eusko Legebiltzarrari, dagozkion bideei jarraituz, eta Legebiltzar taldeei galdetu ostean, Euskadin askatasun zibil eta politikoek duten garrantziaz eta egoeraz jabetzea lagunduko duen bilkura monografikoa antolatzeako eskatzea. Gaiaren inguruko ebazpenak eta gomendioak, legebiltzarrean ordezkaturako indar politiko guztien artean aztertu, eztabaidatu eta adostea du jomugatzat.

- Adierazpen instituzional bat sustatzea, euskal herritar guzti-guztien eskubide zibil eta politikoak erabat bete daitezen.

Eusko Jaurlaritzak askatasun zibil eta politikoaren aurrean azaltzen duen jarrera laburbilduko duen adierazpen instituzionala egitea. Horretarako, ahalik eta adostasun handiena lortzen saiatu beharko da, erabat betetzen direla bermatzeko beharrezkoak diren mekanismoak ezarriko dituzten jarraibideak zehazterik egon dadin.

2.2. Adierazteko, elkartzeko eta politikan esku hartzeko oinarritzko eskubideak errespetatzea

- *Eskubide zibil edo politikoak murriztu edo urra ditzaketen lege-arauak aldatzeko ekimen zehatzak sustatzea*

Eusko Legebiltzarrari nahiz Espainiako Parlamentuari, dagozkien bideei jarraiki, alderdi politikoei eta terrorismoaren aurkako politika juridikoei buruzko araudia aldatu eta egokitzeko ekimenak onartu eta gara ditzatela eskatzea. Alderdiak eta terrorismoaren aurkako borroka arautzeari buruzko politika juridikoak bideratu eta hobetzea da gure helburua, oinarritzko askatasunen zilegizko eremu guztiak eta, bereziki, adierazi, iritzia eman, pentsatu, ideologia izan, elkartu eta politikan esku hartzeko zilegitasuna errespetatu daitezen.

- *Euskal erakundeen eskumeneko gaietan, lehen belaunaldiko oinarritzko eskubide eta askatasunak gauzatu ahal izateko ahalik eta lanik handiena egitea*

Giza eskubideen inguruan indarrean dauden tresnei jarraiki, oinarritzko eskubideak, ahal den hein handienera, edukiz hornitzeko eta garatzeko era zorrotz eta garbienera jarduteko konpromisoa hartzen du Eusko Jaurlaritzak, betiere, dagozkien eskumenen menpe eta indarrean dagoen ordenamendu juridikoa goitik behera bezelako. Arreta berezia eskainiko dio adierazi, iritzi, pentsamolde eta ideologia izan, elkartu, manifestatu eta esku hartzeko askatasunen eremu babestua hobetzeko interpretazioak bideratzeari, horretarako, legeek eskaintzen dituzten interpretazio-aukeretatik, eskubideak gutxien murrizten dituztenak sustatuko dituela.

2.3. Informazio-askatasunaren defentsa

- *Informazio-askatasunaren aldeko sentikortze-neurriak garatzea.*

- Indarkeriaren mehatxupean bizi diren hedabideetako profesionalen adierazpen- eta informazio-askatasuna defendatzea.

Iritzi, adierazpen eta informazio eskubide guztiak, indarkeriaren mehatxu larriaren mende daudenean, askatasunez garatzea helburu duten jarduera guztiei eutsi eta lagunduko die Jaurlaritzak, hedabideetako profesionalak askatasunez adierazteko duten eskubidearen alde egiteko, gizarte demokratiko eta anitz baten ezinbesteko oinarri den heinean. Europako komunikabideekin jardunaldi bat antolatzea, Euskadin informazio-eskubidea zenbateraino betetzen den aztertze.

- Jardunaldia antolatzea Europako hedabideekin, Euskadin informazio-eskubidea nola erabiltzen den eta zein egoeratan dagoen erakusteko.

Europako eta nazioarteko esperientzia eta eruedetan oinarriturik, Euskadiko eta Espainiar Estatuko hedabideen egoera eta funtzionamendua erkatu nahi dira. Praktika egokien kode bati buruzko eztabaida sustatzeko asmoa dago, horretarako, Estatu Demokratiko bateko iritzi publiko kritiko eta independentea eratzeko ezinbestekoak diren agente aktiboen inguruan, hedabideetako arauz kanpoko jarduerak nahiz jarduera eskasak antzemanaz.

- Euskadin hedabidea ixteak ondorioztatu dituen egoerari eta ondorenei buruzko jarraipen-txostena egitea.

Itxitako hedabideen egoerari buruzko txosten inpartzial bat landu nahi da. Independentzia-bermea duten profesionaltasun handiko pertsonak eta adituek landuko dute, hori oinarri hartuta, informazio askatasunaren garrantziaren eta mugen inguruan iritzi publiko arduratsu eta jakitun bat era dadin.

- *Euskal hedabideak itxita sortzen den egoera larriaz ohartzea, eta horri buruz hausnarketa sustatzea.*

Itxitako hedabideei buruzko jarraipen-txostenaren berri eman nahi du Eusko Jaurlaritzak eztabaida-leku egokietan, eta horretarako konpromisoa hartzen du, egunkari bat ixtea edo antzeko beste neurri larri batzuk ezartzea Askatasunen Estatu batean erabat zuriezina baita, egiazko zioaren gainean iritzirik eman gabe; gure ustez, ikuspegi guztietatik begiratuta ere, zuhurtasunezko neurriak ezartzean behar diren heinekotasunaren eta laguntasun-premiaren printzipioen zeharo kontrakoak dira neurri horiek.

5. ardatza

TORTURARI AURRE HARTZEA ETA ATXILO NAHIZ PRESO HARTUTAKO PERTSONEN ESKUBIDEAK ERRESPEATATZEA

1. AURREKARIAK, OINARRIAK ETA PRINTZIPIO POLITIKOAK

1.1. Aurrekariak

- Euskal presoan espetxe- eta zigor-eskubideak errespetatzearen aldeko Eusko Legebiltzarraren Ebazpena (*1994ko otsailaren 18koa*).
- Euskal presoak Euskaditik gertu dauden kartzeletara ekartzeko eskatzearen alde, Eusko Legebiltzarrak hartutako Erabakia (*1995eko abenduaren 28koa*).
- Espetxe-politikari norabide adostu, dinamiko eta malgu berria eransteko Diputatu Kongresuak hartutako Erabakia (*1998ko azaroaren 10ekoa*).
- 2002ko abenduan, Ertzaintzaren atxilotetak kalitatez kudeatzeko ziurtagiria onartu zuen Barne Sailak, Europako Kontseiluko Torturaren Aurkako Batzordearen oniritziz.
- 2003ko apirilaren 8an, Inkomunikazio-erregimenean atxilotutako pertsonen laguntzeko Protokoloa onartu zen.
- Euskal preso guztiak euren gizarte- eta familia-ingurunera urreratzeko eskatzearen alde Eusko Jaurlaritzaren Kontseiluak hartutako Erabakia (*2003ko apirilaren 8koa*).
- Eusko Legebiltzarraren Erabakia, euskal preso guztiak euren gizarte- eta familia-ingurunera urreratzeari buruzkoa (*2003ko ekainaren 6koa*).
- Espetxeak kudeatzeko euskal eredu berri baterako oinarriak (*2005eko martxoaren 5koa*).

1.2. Oinarriak

- Pertsona guzti-guztien giza duintasunaren justizian eta errespetuan oinarritutako gizarte-bizikidetzaren bermatzeko gaitasuna, horixe da, funtsean, Askatasunen Estatu baten, Estatu sozial eta Demokratiko baten oinarria eta zilegitasuna.

Estatuak gizartearen bizimoduan esku hartzeko eta bizikidetzaren hori arautzeko moduren arabera egokitu eta moldatzen dira balioak, printzipioak eta eskubideak. Eta hori dela-eta, hiritarrak eskubideez gabetzean (zigorrak ezarriz) izan ditzake esku-hartze horrek ondorioz drastikoenak, eta orduan da printzipio horiek zuhurtasun handienaz erabili behar direnean eta, horien porrot larria ekidinduen arreta arduratsua eskatzen duen esanahi berezia hartzen dutenean. Esta-

tu demokratiko baten egiazko zentzua behin-betiko urra dezakeen praktikak baztertzea, horixe da, ahal den neurrian, azken helburua.

Historian zehar —eta gaur egun—, estatuaren ordenamendu juridikoan zein nazioarteko zuzenbide-esparruan egiazki eta behin eta berriz azaldu diren arriskuen jakitun, hiritarren gaineko botere-gehiegikeriaren alde egin dezaketen egoerak, eta bereziki, tortura eta tratu anker eta iraingarriak, kostatuta, eragotzi behar direlako ideia finkatuz joan da.

Ibarretxe Lehendakariak, izendatzeko hitzaldian, behin eta berriz azpimarratzen du pertsona guzti-guztien eskubideekiko errespetua ezinbesteko konpromiso etiko bat dela, eta botere publiko guztien jarduteko jarraibide eta eduki izan behar duela. Jarduteko bide horrek, torturaren praktika nazkagarriaren aurrean, oihartzun handi eta biziagoa izan beharko du, tortura non gertatzen den, han. Izan ere, atzeman, atxilotu, giltzaperatu eta espetxeratutako pertsonak, krimenik deitoragarrienak eta ankerrenak burutu badituzte ere, giza duintasunaren jabe dira eta horrela tratatu behar dira, gizarte-gatazka larrienak —delituak, hain zuzen— ebazteko eredu gisa, estatu demokratiko bati dagokiona mantendu nahi badugu.

Geure burua, giza eskubideak errespetatu eta modu zibilizatuan antolatzen diren gizartetzat hartu nahi badugu, ezin dugu ahaztu krimenen zilegizko erantzuna gehiegikeriaz ordeztzen denean, Askatasunen Estatuari dagokion ereduia betetzen denentz ezartzen duen egiazko muga zeharkatzen ari garela. Horregatik, herriaginteei dagokie giza duintasuna etengabe zaindu eta babestea, batez ere, espetxeratutako pertsonen aurka egin daitezken tortura-ekintza edo tratu txarrei aurrea hartzeko.

- Amnistia Internazionalak kaleratutako lehen txostena zela eta, 1984. urtean, lehen aldiz jaso zen mundu osorako balio zuen nazioarte-mailako itun batek tortura eta tratu txarren definizioa, Torturaren eta beste tratu edo zigor latz, anker edo iraingarrien aurkako Nazioarteko Konbentzioan. Eta 2. artikuluan ezartzen den legez, ezin izango da inoiz inola justifikatu, ez egoera berezietan ere, gerra izan edo bestelako larrialdi-egoera izan, ezta goragokoren baten agindua izan da ere.

Ordutik, eta Nazioa Batuek eta gobernuz kanpoko beste erakunde batzuek bulzatuta, tortura babesteko eta praktika horren aurka egiteko mekanismo zehatzak ezarri dira zigor-kodeetan. Espiritu honen ondorioz, tortura edo tratu txarra dardarten jarduerak inoiz gerta ez daitezken, ez puntualki ezta sistematikoki ere, errotik ateratzeari ekin diote lehentasunez. Are gehiago, eraginik ez dutela erakutsi duten prebentzio-ekintzetan delitu egon den aztertze eta egotekotan zigortzeko eta ordaina emateko erabaki irmoa ere hartu dutelarik.

Espainiako 1978ko Konstituzioak ere, 15. artikuluan jasotzen du debeku hori, eta horren arabera, ezin da inola eta inoiz, pertsona bati tortura edo zigor zein tratu jasanezin eta iraingarririk eragin. Debeku hori, gainera, Auzitegi Konstituzionalak ere interpretatu du, Giza Eskubideen Europako Auzitegiaren jurisprudentzia bere eginez eta horren arabera arituz.

- Nazioartean eta estatuan onartzen bada ere, eta horren larritasuna eta ez-legezko-tasuna legez eta teorikoki deuseztatuta egon arren, XXI. mendeak ez dio praktika honen iraupenari muga ekarri. Esan daiteke, tortura, herrialde askotako errealitatea izateaz gain, zientifiko eta sofistikatuago bihurtu denez, askoz zailagoa dela antzeman eta deuseztatzea.

Izan ere, horrela egiaztatzen dute nazioarteko txostena garrantzitsuenek (Amnistia Internacional, Human Rights Watch...), eta diagnostiko berbera egiten dute, hau da, New Yorkeko irailaren 11n eman ziren jazoera dramatikoaren ondorioz norabide-aldaketa historikoa eman dela. Askatasun-eremuetan murrizketa drastikoak ezartzen dituzten segurtasun-politikoetara egiteak, araudi bereziak sustatzeaz gain, egindako bidean atzera egitea suposatzen du, baita tradizio demokratikorik sendoeneko herrialdeetan ere.

- Alvaro Gil-Robles-ek, Europako Batzordeko Giza Eskubideetarako komisarioak, 2005eko martxoan argitara eman duen txostenaren arabera, Espainiar Estatu-ko datuek kezka sortzen dute, eta are gehiago, NBEko Giza Eskubideen goi komisarioaren orduko bozeramaileak, Theo van Boven-ek, torturaren inguruan 2004ko otsailean aurkeztu zuen txostenekoak gehitzen badizkiegu.

Ondorioz, agindu etiko eta politikoa dirudi torturaren gaitzaren aurkako zaintza berpizteak, Estatu demokratiko batek krimenaren aurrean, oro har, eta terrorismoarenean, bereziki, oinarrizko eskubideak eta funtsezko bermeak zorrotasun osoz betetzen dituela bermatzeko eta zilegitasuna izateko. Eskubideen urratze larrienei, normaltasunaren koordinatuen arabera erantzun behar zaie, demokrazia-
ren gorentasun morala bermatzeko.

1.3. Jarduteko printzipio politikoak

- *Tortura eta bestelako tratu krudel eta laidogarriak erabat debekatzeko ukaezinezko konpromisoa berresten dugu.*
- *Zigortutako pertsonen eta euren familien giza eskubideak errespetatuko dituen espetxe-politika aldarrikatzen dugu.*
- *Egoera humanizatzeko ekimenak eta euskal presoak euren familia-eta gizarte-ingurunera hurreratzeako politika bideratzearen aldeko jarrera azaltzen dugu.*

2. KONPROMISOAK ETA EKIMENAK

2.1. Torturari eta tratu txarrei aurrea hartzea

- *Inkomunikazio-erregimenean eta inkomunikaziorik gabe Atxilotutako Pertsonen Asistentzia Koordinatzeko Ertzaintzaren Protokoloak ezartzeko bidean aurrera egitea*

— Horretarako, delako Protokolo hori ezartzen ari dela egiaztatzeko txosten independente bat egingo da urtero.

Besteak beste, atxilotutako pertsonen laguntzeko eta bideo-grabazioko sistemei buruzko Protokoloak egiazki betetzen diren aztertuko duen txosten bat egingo da, torturarik eta tratu txarrik ez dela erabiltzen ziurtatzeko. Protokoloaren egiazko bikaintasun-maila eta horien inguruko alderdi zehatzak hobetzeko beharrak aztertzea izango du xede. Txostena eta bere ondorioak, berriz, herritarrei atxilotuen eskubideak errespetatzen direla egiaztatzeko tresna eraginkorra izanongo dira, horri buruzko bene-benetako irudia emango baitigu.

— Gainera, komunikaziorik gabeko atxiloketa sistematikoki ez dela ezartzen bermatuko du, eta Epaileari, banan-banan eskatuko zaizkio, betiere, behar bezain egiaztatuta badago.

- *Tratu txarrak edo tortura egon diren kasuetan, nazioarteko erakundeen esku hartzea bultzatu eta bideratzea*

Nazioarteko eztabaida-guneen aurrean, hala badagokio, oinarritzko eskubideak babesik gabe uzten duten ereduaren kontrako elementu nabarmenak aurkeztea, arautze horiek ezarri diren kasu zehatzetan arreta berezia eskainiz. Aurkezpen hau bi fasetan banatuko litzateke: Europan, aurrena, eta nazioarteko erakundeen eta eztabaida-guneen eremuetan, ondoren.

- *Zaintza, prebentzio eta kontroleko ekimenak garatzea, torturak eta tratu txarrak galarazteko.*

— Torturaren aurkako Nazioarteko Hitzarmenaren ezarpenari buruzko mintegiak antolatzea.

Gure ingurune juridikoan, eta europarrean bereziki, torturari aurrea hartzeko zer-nolako araudia dagoen aztertzea izango da ekimen honen helburua. Oinarritzko eskubideak babesteko Europan eta nazioartean izan diren esperientziak eta erabiltzen diren erduei jarraiki, prebentzio-praktikarrik eraginkorrenak identifikatzea da asmoa. Iritzi zehatzik gabeko adituen mintegiak planteatuko dira urtero, zuzenbide konparatuaren eta nazioarteko jurisprudentziaren arloari buruzko egoera laburbilduko duen txosten bat egin dezaten, ondoren, gizar-

teari helaraziko zaiona. Azken helburua erreforma juridikoen etengabeko azterketa egitean datza, hau da, denen artean zeintzuk diren sustatu behar diren prebentzio-praktikak, eta zeintzuk baztertu, hobetu edo eraginkortasun handienarekin ezarri ahal diren.

— Gainera, idazle independenteek, euskal herritarrek jasandako tortura-kasuei buruz egindako urteroko txosten bat sustatuko da.

Tortura Euskadin zein egoeratan dagoen argitzeko informazio-tresna independente bat lantzea da helburua; gaian adituak izanik, aurreiritzi jakinik ez duten adituek bermatu beharko lukete lan hori.

2.2. Atxilotutako pertsonen eta beren senitartekoen Giza Eskubideak errespetatzea

- *Espainiako gobernuak premiatzea, euskal presoak, beren gizarte eta familiarengandik gertu dauden kartzeletara ekartzeko Plana egin dezan*

Euskal presoak beren gizarte eta familiarengandik gertu dauden kartzeletara ekartzeko ebazpen bat onetsi zuen Eusko Legebiltzarrak 1994ko otsailaren 18an. Zentzu berean, eta 1995eko abenduaren 28an, Espainiako gobernuak premiatu zuen Eusko Legebiltzarrak, askatasunik gabe zeuden euskal herritar guztiak hurreratzeko eta zigorra Euskal Herrian betetzeko plan bat abiaraz zezan. Ekimen hauek garatzeko helburuarekin, euskal presoak beren gizarte eta familiarengandik gertu dauden espetxeetara ekartzeko plan bat egin zuen Eusko Legebiltzarreko Giza Eskubideen Batzordeak.

Aurrekari hauek hor zirela, eta 1998ko azaroaren 10eko Diputatuen Kongresuaren Erabakia betez, Espetxe-politikari norabide adostu, dinamiko eta malgu berria eransteke eskatu zitzaion Espainiako Gobernuari, eta horren bitartez, Espetxe Administrazioari, euskal presoak zigorrak etxetik gertuen betetzerik izan zitzaten, urreratzeko plan eguneratu berri bat lantzeko. Preso dauden euskal herritar guztiak sartuko dira multzo horretan, egin duen delitua edozein dela ere. Gainera, ikuspegi bikoitz batean oinarrituko da: batetik, egungo egoeraren inguruan eta, bestetik, espetxeen arloko eskumenak EAera transferituta daudelako hipotesian. Sakabanaketaren egungo egoerari egiazko alternatiba ematea da helburua, zigorrak betetzeari buruzko arauak, giza eskubideen babes-ereduak bete ditzaten.

- *Espetxeen Erregelamenduaren erreforma eskatzea, atxilotuek zigorra beren gizarte eta familiarengandik hurbilen dagoen kartzelan betetzeko eskubidea barne har dezan*

Aurreko ekimenaren osagarri gisa, eta dagozkion bideak erabiliz, Erregelamendu hori aldatzeko eskatuko dute euskal erakundeek, ordenamendu juridikoa eta espetxeen gainekoak, gizarteratzeari eta zigorrak humanizatzeari buruzko konstituzioaren printzipioak bete ditzan.

- *Espetxeratuta daudenak gizarteratzeko eta laguntza humanitario, sozial, sanitario eta juridikoa emateko laguntza-programak garatzea*

1994ko Hitzarmen-esparrua (maiatzaren 9ko, 110. BOE) garatuko duten programak diseinatu eta burutuko dira, kartzelaz kanpoko eta espetxealdi ondoko zigorrak hartzeko berezko eremua sortaraz dezaten. Horretan, euskal erakundeak, ordurako transferituta egongo diren eskumenak betearazteaz arduratuko dira, atxilotutako pertsonen gizarteratzearen aldeko Erakundeen arteko (Eusko Jaurlaritzako, aldundietako eta udaletako sailak) Plan bat onetsiz. Izan ere, espetxeak baliabidez eta edukiz hornitu nahi dira, zigorrak betetzeko orduan, gizarteratze-printzipioari jarraituko dion eredu bat sortzerik egon dadin.

- *Euskal Unibertsitate Sistemaren 3/2004 Legea garatzea, askatasunik gabe bizi diren pertsonen unibertsitateikasketak egiteko modua sustatzearen*

Askatasunez gabetuta dauden euskal herritarrak, bi hizkuntza ofizialetan ikasteko, unibertsitate-ikasketak hain zuzen, duten eskubidea gauzatzearen aldeko lege-esparrua garatzeko eskatzea. Zigorra betetzerakoan, presoek gizarteratzeari zuzenduko den eredu bat finkatzen laguntzean datza helburua. Horretarako, izan ere, hezkuntzaren ikuspegiari arreta berezia eskaini beharko zaio, zigorra, pertsonarentzat zein gizarterentzat izango den modu eraikitzailean —eta ez baztertzailan— betetzeko oinarrizko puntu den heinean.

- *Kartzelan dauden pertsonen senitartekoei zuzendutako humanizazio-neurriak bultzatzea*

Euskal Autonomiako zein horretatik kanpoko espetxeetan dauden pertsonak bisitatzerako joateko, senitartekoei bideratutako diru-laguntzak arautzen dituen urteroko Dekretua garatzen jarraituko du Jaurlaritzak, familiarengandik urrun dauden bitartean, presoek familiak humanizatze modu bat dela uste duelako.

Ibili beharreko bidea:
«BAKEARI ETA BIZIKIDETZARI BEGIRA HEZTEA.
ADISKIDETZEA»

1. AURREKARIAK, OINARRIAK ETA PRINTZIO POLITIKOAK

1.1. Aurrekariak

- «Euskal Herrian bakeari begira heztea. Euskadin Bakerako hezkuntza sustatu eta garatzeko oinarri eta proposamenak» izenburupeko mintegia. (1998).
- 2000 urtean, Bizikidetzarako Hezkuntza Programa sortu zuen Hezkuntza Berriztatzeko Zuzendaritzak.
- 2001eko maiatzean, Bizikidetzarako eta Bakerako Hezkuntzari buruzko Biltzar bat antolatu zen, tartean, nazioarteko adituek esku hartu zutelarik.
- 2001eko irailaren 28an, Bakegintzari, Normalkuntza Politikoari eta Elkarrizketari buruzko Bilkura Monografikoa egin zen.
- 2002ko uztailean, Gernikako Bake Museoa sortu zen.
- Hezkuntza Berriztatzeko Programa 2003-2006 barruan, «Eskola Inklusiborantz» izeneko Lehenetazko Jarduera Lerroa onartu zen, elkarbizitzarako eta bakera-ko hezkuntza garako ekintzak zehaztuz.
- Giza Eskubideei buruzko «Bakean Bizitzeko Giza Eskubidea» izeneko Biltzarra, 2004. urtean.
- EHUko udako ikastaroa: «Euskadin, egun, bizikidetzari eta bakeari begira heztea» (2004ko uztailea).
- 2005eko ekainaren 22ko Eusko Legebiltzarreko Lehendakaria Izendatzeko Saioa eta, Legegintzaldi honetako Gobernu Koalizioaren Erabakia.

1.2. Oinarriak

Bakea lortzea ez da lan makala. Izan ere, gizateriak lagun izan du historia osoan zehar indarkeriaren kultura eta, egun ere bere horretan jarraitzen du, planeta osoko milioika gizakiren gaitz izanik. Bakearen bidea luzea eta latza izan arren, itxaropenaz blai datorkigu.

Bakea proposamen iraultzailea dela diote, eta ez soilik indarkeriarik egon behar ez duelako, egiazko Bake-egitura bat ere eskatzen duelako. Bakean bizitzea prozesu jarraikorra da, mugarik gabekoa, eguneroko ekintzekin, asmo oneko eguneroko ekintzekin uztartu behar dena. Pentsatu, sentitu eta jarduteko moduak errespetatzen dituzten ereduak sortzera zuzendutako ekintzak. Izateko eta mundua ulertu eta bizi-

tzeko modu berri bat eraikitzea da, banakako pertsonen jardueratik at, eta talde-izana erabat bereganatuta.

Horrenbestez, herritarrak bakean eta balio demokratikoetan hezi nahi izanez gero, etengabeko politika egokia bideratu behar da, eta halaxe izan behar da, gainera, giza eskubideak komunitate bat antolatzerakoan zein garrantzizkoak diren jakinda, bakea iritsi nahi duten gizarte guztietan.

Herritarrak bakean eta balio demokratikoetan hezteak ez da, beraz, beste politika bat, edo une jakin bateko politika bat, besterik gabe. Egoeraren araberrako arrazoiengatik diseinatu, geureganatu eta gure artean indar bereziz zabaldu behar den politika bat da, euskal gizartearen baitan bake-prozesu hau atzeraezin bihurtzeko gehiengoren irrika eta oinarritzko giza eskubideen urratzeek irekitako zauriak elkarrekin bizi baitira. Egun, oraindik eta tamalez, pairatzen dugun ondorena utzi diguten urratzeak, alegia.

Tresna egoki eta errespetagarria da, beraz, gurea bezalako gizarte heldu eta nagusi batentzat bakearen eta balio demokratikoen hezkuntza, irmo eusten baitio, egiazko euskal gizarte libre eta zintzoa, bakean biziko dena, osasuntsu eta indartsu eraikitzeko ezinbestekoa den gutxienerako humus etiko eta sozialari uzteko asmoari.

Ezer baino lehen, giza eskubideekiko kontzientzia eta, horiek urratzearen aurkako-tasun zorrotzenaren beharra finkatu eta sustraitzea sustatuko duen prebentziozko politika positiboa izan behar du bakean eta balio demokratikoetan oinarritutako hezkuntza. Biolentziak gatazkak ebazteko duen zilegitasuna errotoz kentzeko bidea, poliki-poliki, bizikidetzak-sistema baketsu eta demokratiko batez ordezkatzeko.

Bake eta balio demokratikoen kultura bat zabaltzeak, egiazko gizarte-aldaketa eka-ri behar digu eta «utopia historiaren eragiletzat hartzeko» beharraz blaituko gaitu.

Hezkuntza mundua aldatzeko giltzarria dela aldarrikatzen dute Nazio Batuetatik, hezkuntzan inbertitzea oinarritzko eskubide bati erantzuna emateaz gain, bakea eta herriek Bakean bizitzeko duten eskubidea eraikitzea ere badela. Egunerokotasuna egiteko modua eraldatzeak, elkarriketa eta entzutea eskatzen eta lehenesten du, horretarako, pertsonalki zein taldean pentsatu, bizi eta jarduteko bide alternatiboak ematen dituelarik. Azken batez, prozesu jarrai eta iraunkorra da bakerako hezkuntza, pertsonen errealitatea elkarriketaren, errespetuaren, tolerantziaren eta elkartasunaren ikuspegitik laguntzen dien kultura-mota berriaren oinarriak finkatzen dituena.

Mundu osoak sentitu eta gure kultura-eremuan islatzen den sentimendua ere bada bakerako hezkuntza. 1995. urtean UNESCOk berretsi zuen Nazioarteko Hezkuntza Konferentzian, honakoa finkatu zen, jada, Bakearen hezkuntzaren inguruan eta, honetan datzala adierazi: «askatasunen balioa eta horien errozkei erantzutea ahalbidetzen duten ahalmenak bereizteko gaitasuna sustatzean. *Honetarako, hiritarrak pres-*

tatu beharko dira, egoera zail eta ezezagunetan moldatzen jakin dezaten, norbana-ko erantzukizunak betetzen jakin dezaten».

Aldi berean, Bakearen aldeko eta munduko haurren aurkako indarkeriarik gabeko Nazioarteko Hamarkada izendatu zuen Nazio Batuetako Asanblada Orokorrak, 2001. urtetik 2010.era arteko epealdia, eta 1999ko urrian, berriz, Bake Kultura bati buruzko Adierazpena eta Jarduera Programa antolatu.

Ugari dira Euskadin, joera unibertsal honen jarrera gisa, Bakerako eta Bizikidetzarako hezkuntzaren alde abiarazitako ekimenak. Gizartea, erakundeak eta alderdiak ez dira sorgor geratu indarkeriak eragindako oinazearen aurrean. Asmatu ala ez, asko dira abian jarritako ekimenak, batzuetan, indarkeria eragozteko eta, besteetan, samina eta oinazea arintzeko izan badira. Horietan, neurri materialak erabili dira, baina baita giza berotasuna erakutsi ere. Lan-plan honek ekarpen apal bat izateaz gain, zentzu honetan garatu diren ekimenak eta bide honi jarraitzeko dagoen zalan-tzarik gabeko borondate irmoa islatu egin nahi dira, halaber.

UNESCOrekiko elkarlanari ekin genion 1997. urtean, Parisen, Bakearen Kulturari buruzko Proiektuak garatzeko Lankidetzak Memoranduma hitzartuz. Erakundeek, 1998. urtean, Euskadin Bakerako hezkuntzaren inguruan diharduten gizarte-elkar-teekin batera, «Euskal Herrian Bakerako Heztea» izeneko lana burutu zuten. *Euskadin Bakerako hezkuntza sustatu eta garatzeko oinarriak eta proposamenak azterlana egin zuten.*

Hezkuntzaren arloan Bizikidetzarako eta Bakerako Hezkuntza Programa onartu zen 2000. urtean. Hori lantzeko, bizikidetzaz-zentzu demokratikoko pertsonak prestatu behar dituen hezkuntza-sistematikiko uste osoan oinarritu ziren, hau da, giza eskubideen, justiziaren, arraza, genero edo erlijioagatik diskriminazioaren kontrako borrokaren ikuspegitik zuzen-zuzenean heziko duen sisteman sinistuz. Bestea onartzeko, ahulenei elkartasuna erakusteko eta geure ekintzen erantzule izateko heztea, alegia.

2003-2006ko Hezkuntza Berriztatzeko programek ere, lehenasunez ekiten diote Bakerako eta bizikidetzarako hezkuntzari, eskolaren izaera berraztertzeke eta, gizabidea eraiki eta pertsonen eta kulturen arteko ezberdintasunak errespetatzen ikas-tereko eremua berreskuratzeke prozesu gisa.

Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzak Sailaren, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailaren eta Kultura Sailaren arteko elkarlanari esker, egoeraren mapa lantzeko talde tekniko eta adituak osatu ziren. Mapa horretan, hezkuntza formal eta ez-formalean, Bakerako eta bizikidetzarako hezkuntzaren inguruko beharrak eta proposamenak azaldu ziren. 2004. urtean plazaratu ziren azterlan hauen ondorioak.

Geletan ez ezik, gizarte-eremu osoan ere Bakearen eta bizikidetzaren alde lan egingo duen gizarte-sare bat osatu nahian, jarduera asko ezarri dira, eta horien artean, jar-

dunaldi eta ekitaldi ezberdinak, helburua, harremanak izateko eta komunikatzeko moduak eta agintea eta boterea adierazteko erak aldatzea eta, errespetuaren eta erantzukizunaren balioa helarazteak duen garrantzia azaltzea izanik. Pertsonen arteko zein lan, gizarte eta politika arloko gatazkak konpontzeko orduan, oldarkortasunari, bidegabekeriari edo indarkeriari bide emango ez dien ingurunea sortzeko sarea. Bizikidetzaren oinarri, elkarrizketan, errespetuan, erantzukizunean eta komunikazioan duen eremua.

Zentzu honetan, 2005eko ekainean Gobernuaren osatzeko sinatutako Koalizio Hitzarmenak, giza eskubideen alde eta indarkeriaren aurka gogotsu ekiteko ahaleginean, Bake-kulturaren alde bizitzeko apustua egin zuen, hau da: «norbanakoaren eta taldearen giza eskubideekiko errespetua, berdintasuna, elkartasuna, justizia soziala, aniztasunarekiko errespetua eta askatasun zibil eta politikoen defentsa bezalako erreferentzia etikoak bizi eta barneratzea». Horretarako: «hezkuntzaren esparruko berariazko programa eta proiektuak abiarazteko» konpromisoa hartu genuen, horien bitartez «kasuan kasuko, lege, antolamendu eta sustapen neurri egokiak erabiliz, giza balioei eta bakearen eta tolerantziaren kulturari begira prestatzearren».

Neurri horiek guztiek, gainera, elkartze-egiturak eta topa-guneak bideratu eta eraginkortasunez komunikatu eta koordinatu ahal izateko mekanismoak bultzatu behar zituzten. Alderdiaren aldeko emaitzak lortzea helburua izan gabe, gure errealitatea lasai aztertuz, ulertu eta onartu nahi duten epe ertain eta luzerako pentsatutako ekimenak. Horien bitartez, Bakean eta errespetuan oinarritutako egiazko bizikidetzara eraikitzea ahalbidetuko duten pentsamendu- eta jarduerakategoriak sortzerik egon dadin.

ETAk iragarritako su-eten iraunkorrarekin irekitako ilusiozko agertokian bizi da euskal gizartea une hauetan, eta oraintxe, beraz, izan behar du bakerako hezkuntza-politika horrek, eta bigarren gisa, itxaropenaren giltza. Denon artean ireki beharko dugun atea, mendekua eta gorrotoa zirikatu gabe, oinazeak bertan behera utzi, zauriak itxi eta justiziazko erantzukizunak aditzera emateko egoerara hel gaitezten. Datosen belaunaldiei utzi behar diegun etorkizun hoberako oinarri bakarra, oroimena, aitormena, ordaina ematea, justizia eta egia izango baitira. Denok irrikatzen dugun bizikidetzara demokratiko, jasanbera eta adeitsuan aurrera egingo duen eta bizikidetzako geroaldi baterako egoera egokiagoak sortzen lagunduko duen etorkizun baketsua.

Bide luze horretan, giza eskubideen kultura gidari ziurra, historian zehar beste gizarte batzuk egin nahi izan duten ibilbide-orri zuzena da, bizikidetzaprozesuak sustatuko dituzten baldintzak sortzeko. Bihar bertan adiskidetzara lortu nahi genuke, eta horretarako, prest gaude egunez egun bidea egin eta ibiltzeko. Ekintzak kritika eginez interpretatu behar ditugu eta barkamena eskatzeko ausardia geureganatu. Be-

tiere, etorkizunari, errespetuarekiko, aitormenarekiko eta biktimei ordaina ematearekiko konpromisoaren ikuspegitik begira.

Biktimek pairatu duten beldurrari, ahanzturari eta axolagabekeriari aurre eginez ekin ahal diogu bizikidetzaren bideari, zalantzarik gabe, era egokia baita. Aurrena, sortu zutenek eragindako kaltea onartuz baino lortu ezingo den bizikidetzaz. Bizikidetzaren azken jomugak, gure historian zehar eta egun gure artean jarraitzen duten, giza oinaze-mota guztiak onartzea eta horietaz konturatzeari eskatzen du, ahaztu ahal izateko.

Hemen jasotako neurri guztiek, gure helburuei eta konpromiso zibikoari erantzuten diete, iragana iragan, egun sustatu eta egituratu nahi duguna etorkizun itzaropentsua dela jakin baitakigu.

1.3. Jarduteko printzipio politikoak

- *Begirunea, tolerantzia, elkarrizketa, elkartasuna eta justizia bezalako balioetan oinarritutako bizikidetzaz taxutzeko, bakeari begira heztearen aldeko apustua berresten dugu.*
- *Jakin badakigu, bakean bizitzea ez dela, besterik gabe, gatazkarik gabe bizitzea; gatazkei aurre egitea da, betiere, inolako indarkeriarik erabili gabe eta, elkarrizketa eta ulermena bake-tresnatzat erabilita.*
- *Gure gizartean autokritikaren espiritua, barkamena eskatzeko apaltasuna eta barkatzeko prestutasuna sorrarazteko konpromisoa hartzen dugu, adiskidetzeko bideak izan daitezten.*

2. KONPROMISOAK ETA EKIMENAK

1. *Bakean hezteko Euskal Plana egitea, orokorrean, gizarteari eta bereziki, hezkuntza-esparruari zuzendurik, balio demokratikoetan eta Bake-kulturan oinarritutako hezkuntza lortze aldera*

Urteak dira Eusko Jaurlaritzak balio demokratikoetan eta Bakekulturarari begira heztearen alde lan egiten hasi zenetik. Asko dira beren jardueraren eremuaren ikuspegitik bakeari eta balio demokratikoei begira hezteko, hezkuntza-sistemaren, tokiko gizarte-ingurunearen, astialdiko taldeen eta abarren ikuspegitik, lanean ari diren sailak.

Nolanahi ere, ezinbestekoa da sailen arteko lan hau gauzatuko duen antolamendu-egitura batez hornitzea, koordinazio-maila hobetu baten bitartez, erronka berriei aurre egiterik egon dadin eta, koordinazio hobetu eta ondorioak areagotzea ahalbide dezan.

Arlo bakoitzeko ekimenak eta ekintzak, esku hartzeko plan globaletan bateratze horrek, hezkuntzari eta bake-kulturari buruzko sailen arteko Plan formal bat eskatzen du. Planak, gainera, gaiaren garrantzi eta lehentasun politikoa islatu ez ezik, bakegintzaren plangintzarako eta ekintzen kontrolerako tresna ere izan dadin.

2. *Bakean eta balio demokratikoetan funtsatutako hezkuntzaren inguruko departamentu arteko Batzordea sortzea*

Bakearen eta balio demokratikoetan oinarritutako hezkuntzaren inguruko departamentu arteko Plana lantzeaz, eta ostean, betearazi eta kontrolatzeaz, arduratuko den Sailen Arteko Batzordea sortuko da Jaurlaritzaren baitan (esku hartuko duten sailak: Lehendakaritza; Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa; Herrizaingoa; Etxebizitza eta Gizarte Gaiak; Justizia, Lan eta Gizarte Segurantza eta; Kultura).

3. *Bakean eta balio demokratikoetan oinarritutako hezkuntzaren alde diharduten elkarteen Topa-gunea sortzea*

Bakean hezteko Euskal Plana eta dagokion Batzordearen bitartez, Jaurlaritzak koordinazio-lan handia egin behar duen bezala, elkarteen eremuan ere behar-beharrezkoa da euren arteko koordinazioa sustatzea —euren autonomiaren errespetutik—, horrela, dauden baliabideekin sare bat osatuz, gizartean eraginkortasun-maila handienarekin esku hartu ahalko da. Horretarako, beharrezkoa da bakeari eta balio demokratikoei begira hezten duten elkarteen topa-gune bat sortzea.

Honela, bakerako hezkuntzaren arloan diharduten elkarteek, beste elkarte batzuk poliki-poliki bereganatuko dituzten plataforma bat, itxia ezean irekia, osatuko lukete, horren bitartez, espezializazioa, programak eta ekintzak eskaintzeko gaitasuna, eta Administrazioekiko harreman eraginkorragoa bideratuko bailituzkete.

4. *Idazkaritza tekniko bat sortzea, bakean oinarritutako hezkuntzaren alde lan egiten duten elkarteen Topagunearen eta herri administrazioen arteko harremanak susper ditzan*

Bake-hezkuntzaren inguruan lan egiten duten Jaurlaritzako administrazio-unitateen eta elkarteen arteko harremana bideratuko lukeen organoa litzateke Idazkaritza Teknikoa, beraz, bakerako hezkuntzaren alde behar egiten duten elkarteen Topagunea eta sailen arteko Batzordea koordinatuko lituzkeen organoa. Izan ere, ekintzak garatu, eraginkortasuna kontrolatu, disfuntzioak antzeman, bikoiztasunak ekidin eta estrategia-ildo berriak proposatzeko aldizkako bilerak antolatuko lituzke.

Idazkaritza Teknikoak, halaber, sarean jardutea ahalbidetuko liokeen gutxieneko azpiegitura batez hornituko luke elkarteen foroa.

5. «Eskola Inklusiborantz, elkarbizitzarako eta Bakerako hezkuntza» *izeneko lehenetasunezko Jarduera Lerroa garatu eta azpimarratuko duen Hezkuntza Berriztatzeako Programa 2007-2010 onartzea*

«Elkarbizitzarako eta bakerako hezkuntza» programa garatzen dihardu Hezkuntza Berriztatzeako Zuzendaritzak, 2003-2006 hirurtekoan, «Eskola inklusiborantz» izeneko hezkuntza ekintzaren bost jarduera-lerroetako batean sartuta.

Dagokion balorazioa egin ondoren, 2006. urtean zehar, egun berraztertzen eta zabaltzen ari den programa berria onartuko da.

Programak, besteak beste, ondorengo ekintza hauek jaso, antolatu eta bultzatuko ditu: bakean hezteko diziplina arteko proiektuak, ikastetxeetan; gatazkak ebazteko eta elkarbizitzarako estrategiei buruzko aholkularitza-eta esperimantazio-prozesuak, gelan bertan; hezkuntza-komunitateko agenteei, irakaskuntza, ikaskuntza eta bizikidetza prozesuak hobetzeko ekimenetan esku hartzera bultzatzea; eta ikastetxe berean lan egiten duten sare ezberdinetako profesionalen arteko lankidetzaren eremua sortzea.

6. *Ikaskuntza-maila guztietako (formala eta ez-formala) ikasketa-programetan, bakearen, giza eskubideen eta demokraziaren inguruko zeharkako hezkuntza jarduerak txertatzea*

Kulturaren bidetik barneratu behar dira bakea eta Giza Eskubideekiko errespetua, gizartearen kontzientziatu eta horren balioak alda ditzan, horrela, biolentzia eta intolerantzia bezalako balioak, Bakearen aurkako balioak, errotik kentzea eta ukatzea ahalbidetuko baita.

Ikasketa-programek Bakeari begira hezteko erabiliko dira, helburu hori dutela jakinda, eta horretarako, errespetua, erantzukizuna, justizia, askatasuna eta elkartzaren bezalako balioak eta jarrerak helarazi eta sustatuko beharko dira.

Zeharkako ikuspegi batetik, estrategia eta teknika didaktikoak eskaini beharko dituzte ikasketa-programek, hauek lortze aldera:

- gatazkak sumatzea,
- oldarkortasunaren kontrola eta autokontrola,
- elkarrizketa eta negoziazioa.

Ohituak gauzkan indarraren kultura, bakearen kulturarekin ordezkatu ahal izateko behar diren gaitasunak, aurrea hartzeko, ekiteko eta erantzukizuna izateko gaitasunak, hezkuntzak baino ez ditu eskaintzen. Bakerako hezkuntza da, bakerako jarrera egunerokotasunean txertatzea ahalbide dezakeen bakarra.

7. *Ikastetxeen eta familien arteko lankidetzaren sustatzea, tolerantziaren aldeko hezkuntza-programak garatu eta ezarri ahal izateko*

Bakearen kultura, gainera, arazoak konpontzeko prozesu, metodo bat ere bada, horretarako, gizartearen ezartzen joango diren egiturak eta mekanismoak sortu behar direlarik.

Eginkizun garrantzitsua dauka hezkuntzak ezarpen horretan, geletatik, geroko herriarren balioak eta pentsamoldeak eraikitzen laguntzen baita. Dena den, geletako hezkuntza ez da nahikoa aldaketa sakonak erdiesteko. Gure seme-alabek, entzuten dutenarekin, helarazten zaienarekin, eta batik bat, biziingurunean ikusi eta bereganatzen dutenarekin ikasten dute. Horrexegatik, biolentzia erabat baztertu-ko duen kontzientzia sortu behar dugu familiaren zein gizartearen baitan.

Horri begira, tailerrak, topaketak eta mintegiak bultzatuko ditu Hezkuntza Sailak, hezkuntza-prozesuan honako hauek sustatzeko helburuarekin: ikasle, guraso eta irakasleen arteko errespetuan oinarritutako harremanak, elkar ulertzea, elkarriketa, begirunea eta erantzukizuna, gure seme-alabei adeitasunaren nahiz elkar ulertzearen aldeko eta, gorrotoaren zein inkurioaren aurkako, teknikak helarazterik izan dezagun.

8. *Beste autonomia erkidegoetako edo herrialdeetako ikasle eta irakasleekin al-dizkako trukealdiak antolatzea*

Inguruan dugunarekiko bizikidetzaren eta komunikazioaren sustatzearen aldeko elkartrukeak bultzatzeak, errespetua eta bizikidetzaren bermatzen ditu.

Kultura ororen eta adierazpen-mota guztien artean zubiak eta lokarriak ezarri behar ditugu, elkarren artean ezagutzeko eta elkarrekin mintzatuz, elkarri ulertzeko gai izan gaitezten.

Ezagutzen duguna baino ezin dugu bene-benetan ulertu, herri global honetan aniztasuna bakea lortzeko bidea baita. Aniztasunarekiko begirunea indartzearekin behar diogu, eta horretarako, irakasleen eta ikasleen arteko elkartrukeak sustatuko dira hezkuntza-sistematik.

9. *Ikastetxe, udaletxe eta astialdiko taldeen inguruan, bakearen hezteko praktika egokien mapak lantzea*

Egunera arte ikastetxeetan, udaletxeetan edo astialdiko taldeetan egindako lanak, bakerako hezkuntzaren arloan esperientziarik emankorrenak landu dituztenak identifikatzea ahalbidetuko duen diagnostiko bat egitea gomendatzen du.

Ikastetxeetan, udaletxeetan, elkarte-egituretan..., bakearen hezkuntzaren arloko praktika egokiak identifikatu beharko lituzke mapak, eta aldi berean, horiek dokumentazioz hornitu, eskuhartzeko gidak eta jarduteko ibilbideak landu eta beste agente batzuen eskura jartzerik egon dadin. Esperientziarik onenak dokumentatzean datza, bake-kultura berbera bereganatu eta hobetzeko eragile izan daitezten.

10. Bakean hezteko ereduak proiektu integralak sustatzea

Bakean heztera zuzendutako ereduak programa aitzindariak garatuko lituzketen ikastetxe eta udaletxeak aukeratu beharko lirateke praktika egokiak mapen bitartez. Herri batean bakearen alde hezteko garatutako ekintza guztiak erabateko koordinaziopean bateratzea izan litzateke jomuga, ikastetxeetan zein udalean eta guraso, merkatari edo aisialdiko elkarteetan bultzatutakoak, alegia.

Aldez aurretik egindako ibilbide bat eta agente guztien esku hartze arduratsu-arduratsua eskatzen dituzten jarduera-ildo konprometituago eta sakonagoetan aurrera egitea ahalbidetuko luke proiektu aitzindari horrek. Ondoren, plan integral horiek beste ikastetxe eta udaletxe batzuetan eta, azken batez, eskola- eta udal-sare osoan barrena pixkanaka zabaltzea ahalbidetuko luketen dokumentazioa eta protokolo zuzendariak lantzea izango litzateke xedea.

11. Etorrinekiko bizikidetzaren alde eta horiek gizartera eta kultura molda daitezten jardutea, betiere, euren nortasuna errespetatuz

Azken hamarkadetan etengabe gora egin duten inmigrazion mugimenduak babesa eskatzen diguten errealitatea izateaz gain, giza garapena, elkarrekin aberasteko aukera eta gure gizartean justiziaren oinarriak berreraikitze bidea irekitzen diguten indar berriak ere badira. Etengabeko elkartrukeari irekitako kulturak etorkizun, harmonia eta bakearen berme direla konturatzen gara denborarekin.

Erkidego bakoitzak errespetatu behar dugun oroimen bat eta egiteko, imajinatze-ko eta hausnartzeko modu bat dauka bere baitan eta, zenbaitetan, baita gure erreferentzien esparruan txertatu ere, txertatu behar dugu. Horren bitartez, bakearen alde ez ezik, demokrazia garatu eta finkatzearen alde ere egiten dugu, bakerik eta garapenik gabe, demokraziarik ez dagoelako.

Pertsona guztiak barne hartu ahal izateko, egitura-aldaketez gain, jarrera-aldaketak eskatzen dituen globalizazioaren adierazpenetako bat da inmigrazioa. Horretarako, zorrotasunez jarraituko diogu Inmigrazioaren Euskal Planari, eta bereziki, bakerako Hezkuntza Planeko filosofia, estrategia eta jardueraildoekiko koordinazio-lanari.

12. Bake-kultura eta balio demokratikoak hedatzeko, herrikomunikabideetan dibulgazio-programak babestea

Jakitun gara, hedabideek giza portaerak unibertsal bihurtu dituztela eta, erakusten duten errealitatea zein den eta goraipatzen dituzten jarrerak zeintzuk diren, beren informazio- eta hezkuntzalanari esker kultuaren edo indarkeriaren kultura sustatzen dela.

Kezkaren kezkaz, komunikabideen bitartez, izu, irain eta sarraskiaren ikusle huts bihurtu garelara ohartzen gara. Indarkeria entretenitzeko beste modu bat bilakatzen duen, eta gatazkak ebazteko metodorik onena delako ustea bizkortzen duen kontsumoa.

Indarkeriazko hainbeste informazio, datu eta irudi dugu, ezein biolentzia bitxikeria, ikuskizun huts gisa geureganatzen baitugu, eta hain da horrela, lazturarekin bakean bizi garelara.

Maila guztietako informazioa, bake-kulturaren oinarri nagusienetako bat da. Horrexegatik, Jaurlaritzak hedabide publikoekin etengabe elkarlanean jarduteko lankidetzahitzarmen bat bultzatuko du, Bakearen kultura susta dezaten. Hitzarmen horretan, bakearen balioei eta kulturari buruzko gaiak lantzeko oinarritzko jarraitubideak barne hartuko dira, baita publiko ororentzat zuzendutako programa eta jarduera zehatzen plangintza eta gauzatzeko modua ere.

13. Bake-kulturan eta adiskidetzearan oinarrituko diren haur eta gazteei zuzendutako sentikortze-kanpainak bultzatzea

Hedabideetan eskaintzen den biolentzia kontsumitzeak, gizartearen artean, oro har, eta gazteen eta txikiaren artean dinamika suntsikorrak hedatzen baditu, telebistarekiko lilurak, bideo-jokoek eta hainbat musikak, aurka egiteko eta indarkeria zuzentzeko dinamikak bideratzen dituzte. Ondorioz, bakearen kulturaren erreferentzien eta balioen galera konponduko duten alternatibak pentsatu eta abiarazi beharko ditugu.

Horretarako, hedabide publikoekiko etengabeko lankidetzahitzarmeneko atal berezi gisa, adiskidetasuna, autoestimazioa, errespetua, bulkaden kontrola, hitzaren balioa, autokritikagaitasuna, gure ekitaldien ondorioen onarpena, eskubideak eta betebeharrak bateratzeko beharra, eta inor baztertu gabe, berezko nortasuna erakitzeke aukera sustatzera bideratutako sentsibilizazio-kanpainak garatuko ditu Jaurlaritzak.

14. Adiskidetzeko topa-guneak bideratzea, horietan pertsonak elkar daitezen eta, elkarri, nazioarteko esperientzien berri eman diezaioten

Denbora eta aldean arteko topaketa bideratzeko eremua behar dira adiskidetasunera heltzeko. Ezberdintasunak, irainak, saminak eta, baita, energiak, egia, justizia eta itxaropena elkarri adierazteko uneak eta lekuak. Iraganeko erantzukizunez jabetzeko eta, elkarrekiko eta elkarrentzako etorkizun bat eraikitzeko eremua.

Pairatutako bidegabekeriek sorrarazi dituzten samina, trauma eta oinazeak berarekin ekar dezakeen gorrotoa ere adierazteko aukera eskainiko duten uneak eta eremuak. Ezaguna dena onartzeko lekuak. Iragana onartu ondoren, oraina berre-raikitzeke eta ororen etorkizuna irudikatzeke aukera eman diezagukeen tokia. Eremu hauetan zuhurtziaz eta konfidentzialtasunez jardungo da, topaketen bideonetik joan daitezen.

Adiskidetzearen aldeko eztabaida-guneak sustatuko ditu Jaurlaritzak, elkarte zibil eta erlijioekin elkarlanean.

15. Adiskidetze-prozesua suspertzeke baldintza egokiak sortuko dituzten gizarte-sareen garapena bultzatzea

Kultura, erlijio, gizarte edo erakundeen sareekin batera ekimenak eta praktikak abiaraztean datza, azterketaren eta elkar ulertzearen alde, Bakea eta Adiskidetzea oinarri izango dituzten topaketen bitartez eginez.

Hausnarketarako eta moralaren garapenerako tekniken bidez, esperientzia, balio eta gatazkei giro aroposean ekitea ahalbide dezakete sare hauek.

Egoera ulertzeke modu guztiak aztertu beharko dira eta adiskidetze-prozesuan esku hartzeke ideia berriak proposatu. Biztanle guzti-guztiak ordezkatu eta zilegitasunez jantziko dituzten sare hauekin, konfiantza eta lasaitasuna sortu, harremanak bideratu eta bestea ezagutu, eta hainbatetan, ulertu ahal izango dugu.